

© Bergarako Udala - *Ayuntamiento de Bergara*

Testuegileak - Autores del texto:

Museoko Udal lan-talde teknikoa: X. Aranburu Puente, R. Errazkin Arrazau, I. Irizar Unzilla

Bergarako Udala - Bergarako Errege Seminarioaren Museoa

San Martin Agirre plaza z/g

20570 BERGARA

Maketazioa, diseinua eta inpresioa - Maquetación, diseño e impresión:

K3 Inprimategia - Amillaga 1, 6. Pab. - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

Lege gordailua: SS-1109-2013

ISBN: 978-84-938106-2-7

Bergarako Udal Artxiboa:

Zabala etxearen argazkia (25 or.), Dominikoen Fisika kabinetearen argazkia (45 or.)

eta Dominikoen Historia Naturaleko kabinetearen argazkia (113 or.).

Bikaina, aberatsa, aurrera begira

Bergarako Errege Seminarioaren gida

Único, valioso, mirando al futuro

Guía del Real Seminario de Bergara

Argitaratzailea:



Laguntzailea:



2013

Bergarako Udala

Museoko Udal lan-talde teknikoa: X. Aranburu, R. Errazkin, I. Irizar.

Bigarren edizioaren aurkezpena

Esku artean duzun liburu hau, bergararrok gure buruari zor diogun zerbaiten urratsa besterik ez da, Errege Seminarioko museoa balorean jartzekoa.

1981 urtean Udalbatzak Museo hau egitea erabaki zuenetik, korporazio guztiek bultzatu dute egitasmoa, etenik gabe aurrera eginez. Bergarako Plan Estrategikoa landu dugunean ere Museoa eraikitzea eta turismoa garatzea eskatu digute herritarrek.

Denon lanari esker, museoa zabaldu ahal izateko azken bultzada besterik ez da falta eta horretara goaz.

Estualdi garaiak direla ezin ahaztu eta batek baino gehiagok egingo dute galdera bera, ea Museo honen beharra daukagun eta nik, zalantzarik gabe, baietz esango nioke.

Hasiera bateko proiektu handiagoa oraingoz ahaztuz, gaur egungo egoerari egokitutako museo duin bat goaz egitera. Duina bai, baina bikaina hau ere.

Krisia krisi, turismoa indartsu mantentzen den sektore ekonomikoa da eta gurea industrian oinarritzen bada ere, turismoan badugu garatu gabeko potentziala eta ez dago hori baztertzeko arrazoirik.

Ondarearekin iragana eta etorkizuna lotzen ditugu, gure identitatea eraiki. Errege Seminarioak utzitako ondare historikoa erabiliz, Museoak berrikuntza landuko du, hezkuntzan eta zientzian oinarritutakoa, eta erakutsiko du etorkizunean bezala, iraganean ere horren aldeko apustua egin zutela Euskal Herrian, Bergarako Errege Seminarioan. Bere jarduerarekin Museoak balio sozialak sortuko ditu, eta baita ekonomikoak ere.

Etorkizuneko Bergarari begira, Museoaren ekarpena ez da izango turismo eragile soilarena. Museoak, beste garai batzuetan izan dugun lehen mailako hezkuntza, zientzia eta industria gogoratuz, bikaintasuna berreskuratzen laguntzeko akuilua izan behar du, ahalegin zabalago bateko tresna.

Horrelako Museo bat denon lanaren emaitza izango da, liburu honetan ikusten den bezala. Eta denontzat izango da tresna, gaur egun komeni zaiguna.

Juanje Amasorrain Usabiaga
Bergarako Udal Ondare eta Turismo Batzordeburua

Hitzaurrea

Goi mailako erakundeek, eta bereziki hezkuntza eta ikerkerta xede dituztenek, beti uzten dute arrastoa. Bergarako Errege-Seminarioa horietariko bat izan zen eta arrasto sakona laga du, nola ez ba, liburu-gida honek garbi asko erakusten duen bezala. Kultura ondare handia eta anitza bildu zen Seminarioan, gehienbat XVIII eta XIX. mendeetan egin ziren ikerketa eta hezkuntza lanei esker. Gu guztiona den ondarea baina gu guztion oriomenaren zoko ilunenean ia bi mende ezkutuan iraun duena, udaleko museoko lan talde teknikoak egindako lanari esker berriz begibistara ekarri diguten arte. Orain, ondare hori gordetzeko ardura daukagu eta horretarako liburu-gida hau guztiz beharrezkoa da, ondarea ezagutzera emateko, hain zuzen. Ezagutzen ez dena ezin da gorde eta.

Bildumak, garai batean herrian izan zen ezagutzaren lekuko materialak biltzen ditu. Aparatu zientifikoak, eskeletoak, animalia diseinatuak eta abar. Hauek guztiak lanabesak dira, garai hartan zer neurtu edota zer behatu edo frogatu nahi zuten erakusten digutenak. Etnografian bezala, non herritarren lanabesak, herriaren ezagutzaren, sinismenen, eta ametsen eta beldurren, neurri batean bederen, lekuko diren, bilduma honek jasotzen dituen aparatu zientifikoak Bergaran egin zen zientziaren lekuko dira. Gaur egungo erizpideen arabera, guztiz aparteko disziplinatan sailakatuko genituzke bildumak jasotzen dituen tresnak, badira zientzia fisiko-kimikoei dagozkienak, zoologoari beste batzuk, gisa-anatomiari, eta palentologia eta mineralogiari dagozkienak ere bai. Baina, XVIII-XIX. mendeetan, disziplina zientifikoak ez zeuden elkarrengandik gaur egun dauden adina aparte; ez zegoen disziplina zientifikorik, ez gaur egun ulertzen dugun modu hertsian behintzat. Zientzian, oraindik berpizkundearen espirituak ezagutzaren orotasunari indartsu eusten zion. Gero etorri ziren pitzadurak, gaur egun arte iraun dutenak. Beraz, zientziaren historiaren momentu garrantzitsu baten isla dira tresna zientifiko hauek, disziplina zientifikoen sorrera unea. Aldiz, gaur egungo disziplinaren arteotasunaren berpizkundea ikusten ari gara, bildumari darion espiritua berreskuratu nahi da, alegia. Ze irakaspen polita: zenbat buelta eman behar zaizkion plaza berari bertan ez gertatzeko eta aurrera egin ahal izateko. Hau erakutsi ahal izateko bilduma behar da, ez pieza bat bestearen segidan ipinita duen multzo bat. Pieza hauek erlazioak dituzte, agerikoak ez direnak, eta bati edo besteri bakarrik begiratzen zaienean baino errealitate aberatsagoa jartzen dute agerian bilduma bat bezala aurkezten direnean. Honengatik da garrantzitsua bilduma osotasunean erakustea. Bilduma, piezen batura soila baino gehiago da.

Jesus M. Ugalde
EHUko kimika fisikoako katedraduna.
Jakiundeko Lehendakaria.

Prólogo

Para un antiguo colegial, o “seminarista”, que ha dedicado toda su vida profesional a la enseñanza y a la investigación, y que además es bergarés, el ofrecimiento de prologar este libro representa un verdadero honor. Esta obra es una de las más necesarias realizaciones que, a estas alturas, merece la memoria del que fue “Real Seminario de Vergara”, como centro de enseñanza y de investigación único en su época. Las páginas del libro cuentan con detalle y rigor todos los pormenores del Seminario en su larga historia plurisecular, lo que resulta en extremo meritorio e ilustrativo, y que hace del libro una fuente completa de todo lo que sucedió en esta institución. El acopio ingente de información y el estilo directo y denso de su prosa, hace la lectura de este libro sea provechosa, al tiempo que amena y agradable.

Haciendo algunas reflexiones sobre la Historia, sabemos que se trata de un relato sobre nosotros mismos, los humanos, más bien sobre los que nos precedieron, y que está llena de acontecimientos, a veces episódicos, a veces lentos procesos; todos ellos nos han traído hasta el momento actual. A los vascos nos han pasado muchas cosas en el pasado, como a todos los demás, y, a los que vivimos ahora, algunas nos gustan más que otras: las guerras carlistas, la pesca del bacalao hasta Terranova, las guerras de banderías, la influencia de la Iglesia Católica, etc., son hechos de nuestra historia que levantan enjuiciamientos y opiniones de toda índole. Esto de juzgar el pasado con las ideas del presente, o lo que es lo mismo, lo sucedido en una época con las ideas de otra, siempre ha tenido el efecto de querer construir un presente que anule o contrarreste un pasado que no gusta, o gustaba: la catedral de Santa Sofía fue transformada en mezquita y la mezquita de Córdoba en catedral. Sin embargo, lo cierto es que el pasado no se puede cambiar, sólo se puede ocultar, maquillar o decorar, pero no se puede transformar en otro que nos guste más. Desde los presupuestos éticos e ideológicos actuales, la mayoría de las cosas del pasado nuestro parecen poco presentables, las conquistas militares, la esclavitud, el sometimiento de la mujer, las persecuciones religiosas, etc., resultan censurables para nosotros, pero sin embargo sucedieron, y fueron protagonizados por nuestros propios antepasados. Pero, si queremos ser rigurosos, todo ello debe ser analizado teniendo en cuenta su tiempo histórico, debe ser debidamente contextualizado, si no, caemos en una especie de doctrinarismo sectario que pretende tiranizar la historia, el cual, además, solo perdurará el tiempo que la corrección ideológica del momento perdure (no tiene porqué ser definitiva o eterna, como tal vez algunos crean).

En este sentido, el Real Seminario de Vergara, que durante un tiempo llevó el sobrenombre de “Colegio de Nobles”, presenta rasgos que a nuestros ojos resultan inaceptables, por ser indicadores de una enseñanza clasista dedicada a una pequeña minoría privilegiada y fue motivo de rechazo para algunos. En efecto, esto es así, pero no por ello la institución que ahora rememoramos dejó de ser excelente en muchos aspectos y durante mucho tiempo, no solo en el siglo XVIII, sino el XIX y el XX y también la época previa de los Jesuitas del siglo VXII. La enseñanza en los tiempos antiguos anteriores al siglo XIX, era una cuestión de minorías, y eso era en todos los países del mundo y desde el tiempo de los griegos y los romanos; no había enseñanza para el conjunto de la sociedad, mas esto no significaba que fuera o no excelente. Como consecuencia de la Revolución Francesa, se asume en Occidente que la enseñanza es un servicio que se ha de proveer a toda la sociedad, pues se entiende que es la mayor aseguradora del cumplimiento del principio de igualdad de oportunidades y constituye el instrumento básico de transformación social a favor de una sociedad más igualitaria, más permeable socialmente y más democrática. En este aspecto, nuestro viejo

Seminario siempre cumplió con lo que se demandaba en cada época, desde la enseñanza clasista de antaño (los nobles) hasta la universal de nuestros días, pero siempre con un denominado común: la excelencia. Siempre, o casi siempre, en el Seminario se impartió una enseñanza de calidad, incluso en la época en la que yo fui colegial, la de los Dominicos en la década de 1960. La enseñanza que recibíamos era, para aquél tiempo, innovadora y rigurosa, lo que quiero poner de manifiesto aquí, como homenaje a quienes fueron mis profesores y dirigieron el centro en aquéllos años. Es cierto que hay períodos cumbres, como el del último tercio del XVIII, en el que se alcanzó el nivel máximo de su historia. Nada menos que se puso en práctica, casi por vez primera, un principio que luego se ha ido aplicando a todas las universidades del mundo y que fomentaron decididamente los alemanes en el siglo XIX: combinar docencia con investigación científica. Claro está que este período destaca con gran ventaja sobre todos los demás.

De esta forma, podemos decir que el elemento común a todas las épocas del Seminario fue y es la excelencia, básicamente en la enseñanza de todo tipo, pero destacando en la de carácter científico-técnico, y, dentro de ella, la que ocupa el tramo de edades de las enseñanzas medias. Solo por esa excelencia, que fue reconocida en toda la monarquía hispánica, y que hacía que “ir a estudiar a Bergara” resultara una garantía de acudir a un lugar prestigioso y de calidad (como si fuera Eton en Inglaterra), merece que prestemos atención al Real Seminario, y conservemos y recuperemos su patrimonio material y su memoria histórica.

Por eso, debemos celebrar la feliz iniciativa y patrocinio del Ayuntamiento de Bergara y de la Diputación Foral de Gipuzkoa en las acciones diversas de puesta en valor de este patrimonio histórico y cultural, lo que es propio de tan excelentísimas instituciones. La exaltación de las glorias del pasado es una de las tantas responsabilidades de las instituciones públicas, en lo referido a su faceta cultural, y este caso del Real Seminario de Vergara representa una ocasión apropiada, que además viene a suplir un cierto olvido y desatención que ha habido en tiempos en los que la cultura era menos apreciada.

Javier Loidi

*Amigo de Número de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Catedrático de la UPV/EHU*

Bakarra eta Bikaina
Único

Aspaldian, alfabetatze- eta eskolatze-indizeak gaurkoak baino askoz ere baxuagoak ziren, eta ez zen normala nork bere herrian goi mailako ikastetxe bat izatea, ez zen ohikoa, salbuespen-salbuespena zen -eta era berean, abantaila ederra-. Hori gertatu zen Bergaran: XVI. mendearen bukaeratik aurrera, Errege Seminarioko orubeak bere baitan hezkuntza eta zientzia arloetako erakunde bikainak hartu izan ditu. Jatorrian, Jesusen Konpainiak ikastetxe ospetsu bat sortu, eraiki eta zuzendu zuen Bergaran (1593-1767); hau izan zen jesuitek Euskal Herrian sortu zituzten bederatzi ikastetxe bakanetako bat. Gero, XVIII. mendearen bukaera aldera, Europako ikerketa zientifikorako gune ospe-tsuenetariko bat izan zen Seminarioa. Hemengo instalazioetan elementu kimiko berri bat isolatu zuten -wolframioa-, eta platinoa xaflakor egiteko metodoa asmatu zuten. XIX. mendean zehar, Errege Seminarioa nabarmendu egin zen Gipuzkoako Goi Mailako Institutua izan zelako -Gipuzkoako lehenengo institutua izan zen, eta hamarkada batzuetan zehar bakarra-, eta mende bereko Erdiko Urteetan, Eskola Industrial izan zelako -Euskal Herrian zegoen eskola industrial bakarra-. 1976tik aurrera, Bergara unibertsitate-hiria da, bertan baitu UNED Urrutiko Unibertsitateko zentro elkartuak bere egoitza.

IHS: JESUSEN LAGUNDIAREN IKASTETXEA

Predikazioa

Europa XVI. mendearen hasieran asaldatuta eta aztoratuta zegoen. Erdi Aroan sinesmen-arloan ofizialki zegoen bateratasuna apurtu egin zen zeharo. Jesusen Lagundia sortu zen, 1540an, Aita Santua defendatzeko eta protestanteei aurre egiteko (erreformatutako eliza luteranari, anglikanari, kalbinistari...). Kontrarreforma katolikoaren izpiritua eta doktrina zabaltzeko borrokan, jesulagunek bi bitarteko erabili zituzten batez ere: ebanjelizazioa eta hezkuntza.

Antiguamente los índices de alfabetización e instrucción eran muy inferiores a los actuales y, más que algo corriente o habitual, era excepcional -y al mismo tiempo una ventaja- contar en la propia localidad con un centro de instrucción de alto nivel. Este es el caso de Bergara: desde finales del s. XVI, el solar del Real Seminario ha acogido instituciones docentes y científicas relevantes. Su origen hay que buscarlo en el renombrado colegio que la Compañía de Jesús fundó, construyó y regentó en Bergara (1593-1767); éste fue uno de los únicos nueve colegios que los jesuitas crearon en el País Vasco. El Seminario fue luego, a finales del siglo XVIII, uno de los polos de investigación científica más afamados de Europa y en sus instalaciones se descubrieron un nuevo elemento químico -el wolframio- y el método para hacer maleable el platino. Durante el siglo XIX, el Real Seminario destacó por haber sido Instituto Superior Guipuzcoano -el primero y durante décadas el único Instituto del territorio- y también, en los años centrales de la centuria, Escuela Industrial, la única escuela industrial que existía en el País Vasco. Bergara es, desde 1976, ciudad universitaria gracias a que en ella se estableció el centro asociado de la Universidad a Distancia- UNED.

IHS: EL COLEGIO DE LA COMPAÑÍA DE JESÚS

Predicación

Europa se revolvía y agitaba a comienzos del siglo XVI. El consenso oficialmente existente en la Edad Media en el campo de las creencias se quebró definitivamente. La Compañía de Jesús (1540) nació para defender al Papa y combatir a los protestantes (iglesias reformadas luterana, anglicana, calvinista...). En su lucha por extender el espíritu y la doctrina de la Contrarreforma católica, los jesuitas utilizaron dos medios fundamentalmente: la evangelización y la educación.

Jesusen Lagundiko kideek mundu osoan zehar zabaldu zuten fede katolikoa: India, Txina eta Japoniaraino iritsi ziren; garrantzi handiko misioak sortu zituzten Amerikako barne aldeko lurralde ezkutuetan; katolizismora berriz bildu zituzten Polonia, Bohemia eta Germaniako hegoaldeko lurralde zabal batzuk, eta erresuma katolikoen barruan ere entzun ziren haien sermoi sutuak, erlijiotasun herrikoia berbiderratu eta berrezi nahian.

Bergaran, XVI. mendearen erdialdean jesulagunek eman zituzten predikuak oso ospetsuak izan ziren. Carlos I.a erregearen gortean eragin handikoenen arteko noble boteretsu eta aberats bat, Gandiako IV. Dukea, hazienda eta ohore guztiak utzi eta Jesulagunen Ordenan sartu zen: Franzisko Borja izan zen, "duke santua". 1551. urtean, Bergaran ere predikatu zuen, San Pedro parrokian lehenengo, eta gero, jendetzaren aurrean, Santa Ana ermitaren inguruko lursailetan.

Irakaskuntza

Predikuarekin batera, Jesusen Lagundiak hezkuntzalana ere garatu zuen Bergaran. Hemen finkatu baitziren jesulagunak, 1593an, Genovako Magdalena Centurione damak bidalitako diruari esker, eta baita herritar askoren ahaleginei eta ardurei esker ere. Izan ere, herritar batzuek lagundu egin zuten, bai gestioak eginez bai orubeak edo etxeak dohaintzaz emanez, jesulagunak herrian eroso egoteko moduan gelditu zitezten.

Heziketan espezializatutako erlijio-ordena baten zuzendaritzapean ikastetxe bat herrian izatea agerikoa abantaila praktikoa izateaz gain, Kontrarreformako Europa hartan Jesulagunen Lagundiko eta Ikastetxe bateko egoitza izateak herriari izaera berezia eta garrantzia ematen zion.


Los miembros de la Compañía de Jesús difundieron la fe católica por todos los confines del mundo: llegaron a la India, China y Japón; fundaron importantes misiones en las recónditas tierras interiores de América; recuperaron para el catolicismo Polonia, Bohemia y amplios territorios de la zona meridional germánica, y sus fervorosos sermones se escucharon también en el seno de los reinos católicos, en los que se pretendía reconducir y reeducar la religiosidad popular.

Las predicaciones jesuíticas de Bergara, de mediados del siglo XVI, fueron muy sonadas. Uno de los nobles más poderosos, ricos e influyentes de la corte de Carlos I, el IV Duque de Gandía, abandonó honores y hacienda para ingresar en la Orden de los Jesuitas: nos referimos a Francisco de Borja, el "duque santo", que catequizó en Bergara, en la parroquia de San Pedro y ante una muchedumbre en las campas que rodean la ermita de Santa Ana, en el año 1551.



Begarako jesulagunen ikastetxearen fatxadan zegoen Lagundiaren armarría (gaur Olaso dorrearen lorategian).

Escudo de la Compañía que se hallaba en la fachada del colegio de los jesuitas en Bergara (hoy en el jardín de la torre Olaso).



*Jesusen Lagundiak Bergaran jasotako eraikin-multzoaren planoak.
Plano del complejo edificado por los jesuitas en Bergara.*



Andres Madariagaren hilobia Bergarako jesulagunen elizan, 2009-2010 indusketa arkeologikoan aurkitua.

Iglesia de los jesuitas en Bergara: tumba de Andrés de Madariaga descubierta en la excavación arqueológica de 2009-2010.

Docencia

Junto con la predicación, la Compañía de Jesús desarrolló su labor docente en Bergara, lugar en el que se asentó en 1593 gracias a la manda dineraria de la dama genovesa Magdalena Centurione y a los esfuerzos y desvelos de muchos vecinos de la localidad, quienes, bien realizando gestiones, bien mediante donaciones de solares o casas, contribuyeron a que los jesuitas encontraran acomodo confortable en la población.

Además de la evidente ventaja práctica de contar con un centro educativo regido por una orden religiosa especializada en la docencia, en la Europa de la Contrarreforma ser sede de Colegio y Comunidad de los jesuitas imprimía carácter y daba empaque a la Villa.

Los jesuitas construyeron -en el solar del actual Seminario- iglesia, residencia y colegio. Cuando finalizaban estas obras, se dio inicio a las de construcción del nuevo Ayuntamiento (actual fachada consistorial), con lo que nació la plaza barroca de Bergara, la que conocemos hoy con el nombre de San Martín Agirre. Del complejo erigido por los jesuitas conservamos en la actualidad la iglesia y el "cuarto nuevo".

Madariaga el benefactor

Don Andrés de Madariaga (1628-1699) fue el benefactor más generoso con que contó en Bergara la Compañía de Jesús durante el siglo XVII. Madariaga, caballero de la Orden de Calatrava, amasó fortuna en América y donó una suma fabulosa para que se terminara la obra de la iglesia de los jesuitas en su localidad natal. A cambio se le autorizó a que construyera en el templo una tumba para él y sus sucesores. Andrés de Madariaga contribuyó así, tal y como le exigía el honor, al bienestar de la villa que le vio nacer, y re-

Jesulagunek gaur eguneko Seminarioko orubean eliza, egoitza eta ikastetxea eraiki zituzten. Lan horiek bukatzeaz zeudenean, Udaletxe berria eraikitzeko lanak hasi ziren (gaur egungo udaletxeko fatxada), eta horrela sortu zen Bergarako plaza barrokoa, San Martin Agirre izenez ezagutzen duguna. Jesuitek eraikitako etxaditik, gaur egun eliza eta “gela berria” -agiritan “cuarto nuevo” izendatzen dutena- mantentzen dira.

Madariaga ongilea

Andres Madariaga jauna (1628-1699) izan zen Jesusen Lagundiak XVII. mendean Bergaran izan zuen ongile eskuzabalena. Madariaga, Calatravako Ordenaren zalduna, Amerikan aberastu egin zen eta dirukopuru ikaragarria eman zuen bere sorterrian jesulagunen elizaren obra bukatu ahal izateko. Horren truke, elizan hilobi bat egiteko baimena eman zioten, berarentzat eta bere oinordekoentzat. Horrela, Andres Madariagak, ohoreak agintzen zion bezala, bere sorterriaren ongizatearen alde lagundu zuen eta, aldi berean, karitatezko egintza bat egin zuen; izan ere, gizarte protestanteetan ez zen bezala, mundu katolikoan fedez gain on-egintzak ere egin behar izaten ziren arima salbatzeko.

Jesusen Lagundiko ikastetxeek ospe handia eta bidezkoa lortu zuten Latinitatearen eta Humanitateen irakaskuntzan zuten kalitateagatik; eta ikasketa horiek behar-beharrezkoak ziren, besteak beste, Administrazioan ardurako postuak bete ahal izateko. Bergarako ikastetxea jesulagunek gure inguruan bideratu zituzten bederatzi ikastetxe bakanetako bat izan zen. Izatez, Lagundiak honako ikastetxeak finkatu zituen: Bizkaian, Urduña, Lekeitio eta Bilboko ikastetxeak; Nafarroan, Iruñea eta Tuterakoak; eta Araban ez zuen bat ere sortu. Gipuzkoan, berriz, Lagundiko ikastetxeak Bergaran eta Donostian zeuden,



Jesusen Lagundiaren ikastetxearen fatxada. 1767. urtetik aurrera, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek hartu zuen eraikina eta bertan Errege Seminarioa antolatu zuen.

Fachada del colegio de los jesuitas. Tras 1767 la Sociedad Bascongada regentó el edificio y fundó en el mismo el Real Seminario.

alizó al mismo tiempo una obra de caridad; no en vano, a diferencia de las sociedades protestantes, en el mundo católico, además de la fe, las buenas obras también contaban para la salvación del alma.

Los colegios de la Compañía de Jesús ganaron justa fama por la calidad de sus enseñanzas en Latinitad y Humanidades, estudios imprescindibles, entre otras cosas, para poder acceder a puestos de responsabilidad en la Administración. El Colegio de Bergara fue uno de los únicos nueve colegios que los jesuitas regentaron en nuestro entorno. Efectivamente, la Compañía estableció, en Bizkaia, los colegios de Orduña, Lekeitio y Bilbao; en Navarra los de Pamplona y Tudela, mientras que en Araba no fundó centro alguno. En Gipuzkoa los centros de enseñanza de la Compañía se situaban en Bergara y en San Sebastián, mientras que en Azkoitia había una modesta escuela. Oñati contó en dos épocas diferentes con estudios dirigidos por jesuitas: durante la segunda mitad del siglo XVI y posteriormente a partir de mediados del siglo XVII.



Xabier Maria Munibe, Peñafloresko kondea (1723-1785).

Xabier María de Munibe, conde de Peñaflores (1723-1785).

eta Azkoitian eskolatxo xume bat zegoen. Oñatik, berriaz, bi garaitan izan zituen jesulagunek zuzendutako ikasketak: XVI. mendearen bigarren erdian zehar, eta gero, XVII. mendearen erditik aurrera.

ARGIEN GARAIA

Bergara aitzindari

1766. urtean hainbat errebolta eta altxamendu gertatu ziren Carlos III.a erregearen aginteko lurretan. Gogorra izan zen Gipuzkoa eta Bizkaiko Matxinada eta handia Madrilgo “Motín de Esquilache” deitutakoa. Istiluen atzean zeudela argudiatuta, Jesuitak erresumatik kanporatu zituen erregeak.

Bergaran, Konpainiaren ikastetxea hutsik gelditu zen. Peñafloresko konteak sortutako Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte egin zen eraikuntzaren kargu.

Elkartearen asmoa zen Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba modernizatzea, eta horretarako funtsezkoa jotzen zuen Europan ematen ari ziren berrikuntza eta

EL SIGLO DE LAS LUCES

Bergara en la vanguardia

1766 fue un año difícil en los territorios peninsulares bajo dominio de Carlos III, tal y como evidenciaron las diferentes revueltas y alzamientos que entonces estallaron. La Matxinada de Guipúzcoa y Vizcaya fue grave, y duro y violento el Motín de Esquilache en Madrid. La corte acusó a la Compañía de Jesús de ser la instigadora de disturbios tan peligrosos para la paz y la estabilidad general y un año más tarde, en 1767, el rey expulsó a los jesuitas del reino.

La comunidad de jesuitas de Bergara tuvo que abandonar el colegio y tan magnífico edificio pasó a ser regentado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País que el Conde de Peñaflores había fundado.

El objetivo de la Sociedad Bascongada era el de modernizar los territorios de Gipuzkoa, Bizkaia y Árabas mediante la confluencia con las innovaciones y avances científicos y la asimilación de las nuevas dinámicas y corrientes de pensamiento que se estaban dando en Europa. Fue precisamente para conseguir esa meta por lo que los Amigos del País fundaron el Real Seminario de Bergara (1776), nombre con el que desde entonces se conoce al colegio que la Compañía construyó en nuestro pueblo.

Al siglo XVIII se le denomina el Siglo de las Luces. En Europa, pensadores, intelectuales y profesores reivindicaron la idea de que las personas en sus actos deben desterrar las viejas creencias, las supersticiones y los prejuicios. Por el contrario, los seres humanos deben servirse de un don natural, de la luz del entendimiento, es decir, de la razón. Esta forma de pensar se concretó en un movimiento cultural denominado Ilustración.

aurrerapen zientifikoekin bat egitea, dinamika, giro eta pentsamolde berri horiek gureganatzea.

Horretarako hain zuzen fundatu zuten Bergarako Errege Seminarioa (1776). Ordutik hona izen horrekin ezagutzen zaio jesuitek gure herrian eraikitako ikastetxeari.

XVIII. mendeari Argien Mendea deitzen zaio. Europan hainbat pentsalari, intelektual eta irakaslek aldarrikatu zuten pertsonak bere jardueran alde batera utzi behar zituela sineskeria zaharrak, oinarririk gabeko susmoak eta aurre iritziak. Horien ordeztatzeko dohain batez baliatu behar zuen, gizakiaren adimenaren argiaz, arrazoiaz alegia. Pentsamolde honen izena Ilustrazioa da.

Ilustrazioaren iturburuan lehenagotik datozen bi pentsamolde topatuko ditugu: XVII. mendeko arrazionalismoa (Descartes, Leibniz, Spinoza) eta XVII. mendetik XVIII. mendera doan enpirismoa (Locke, Berkeley, Hume). Ilustrazioa arrazoiaren oinarritzen da, baina ez da giza-arrazoiaren ahalmen espekulatibo soilarekin konformatzen. Ilustrazioaren garaian, esperimentazioak eta zentzumenek ematen dituzten datuek gidatzen duten arrazoiaren nagusitzen dena. Horretan oinarrituta, gizakiak etengabeko aurrerabidea egingo zuela pentsatzen zuten ilustratuek.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen eta nazioarteko harreman zientifikoak

Xabier Maria Munibek -Peñafloridako konteak-, Joaquín Egiak, Miguel Jose Olaso Zumalabek eta beste zaldun batzuek Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sortu zuten 1764. urtearen bukaeran, eta 1765ean Bergaran egin zuten bere lehen bilkura ofiziala.

En el origen de la Ilustración hallaremos dos corrientes filosóficas anteriores: el racionalismo del siglo XVII (Descartes, Leibniz, Spinoza), y el empirismo que va del XVII al XVIII (Locke, Berkeley, Hume). El pensamiento ilustrado, aun basándose en la razón, no se conforma con la capacidad humana del razonamiento meramente especulativo. La razón ilustrada es aquella que es guiada por la experimentación y por los datos proporcionados por los sentidos. Apoyándose en ella la humanidad recorrería un camino de eterno progreso.

Las relaciones científicas internacionales trazadas por la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País

A fines de 1764, los caballeros Xabier María Munibe -Conde de Peñaflorida-, Joaquín Eguía, José Olaso Zumalabe entre otros fundaron la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, cuya primera sesión oficial se celebró en Bergara en 1765.

La Sociedad Bascongada es la materialización del pensamiento ilustrado en nuestro entorno. Ella fue además tomada como modelo para las sociedades económicas de amigos del país que fueron creándose posteriormente en los territorios regidos por Carlos III.

Siendo la razón y la experimentación el instrumento principal del que debe valerse el ser humano, será preciso cultivarlo y ejercitarlo. Así, los ilustrados concedían una importancia primordial a la educación, y más concretamente a la enseñanza de las “ciencias prácticas”. Por ello fundaron también los ilustrados vascos el Real Seminario de Bergara (1776): para elevar el nivel educativo, para poner en práctica también aquí las innovaciones científicas que se estaban dando en Europa, y para que el Seminario fuera un semillero de personas de valía.

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartean gorpuzten da Ilustrazioa gurean. Bera izango da gainera eredu Carlos III.aren lurraldeetan sortuko diren talde ilustratuentzat.

Arrazoa eta esperimentazioa izango badira gizakia-
ren tresna nagusia, beharrezkoa izango da horiek
lantzea eta trebatzea. Horregatik eman zioten ilustra-
tuek berebiziko garrantzia hezkuntzari eta zehaz-
kiago “zientzia praktikoen” irakaskuntzari. Horregatik
ere fundatu zuten ilustratu euskaldunek Bergarako
Errege Seminarioa edo Mintegia (1776): hezkuntza
maila igotzeko, Europan ematen ari ziren berrikuntza
zientifikoak hemen ere lantzeko eta Seminarioa per-
sona baliotsuen mintegi izateko.

Bergarako Errege Seminarioa lehen mailako hez-
kuntza eta ikerketa zientifikorako erakundea egin
zuten euskal probintzietako zaldunek. Bertan disei-
natu eta martxan jarri zuten Europan industri espioi-
tzan aritzeko plan bat, Carlos III.aren gobernuak
zuzendua eta Juan Jose Elhuyar-ek (1754-1796) eta
I. Montalvok gauzatua; Seminarioa garaiko zientzia-
lari europear ospetsuenekin harremanetan egon zen;
elitezko irakasle eta ikerlari taldea bildu zuen; aitzin-
dari izan zen “Kimika eta Metalurgia” zein “Minera-
logia eta Lurrazpiko zientziak” deituriko jakintza arlo
berrien irakaskuntzan; mineral eta zoologia gaien
bilduma aberatsak osatu zituen, lorategi botanikoa
egin eta ondo hornitutako fisika eta kimika labora-
tegi bikainak izan zituen.

Errege Seminarioko zuzendariak lan harremanak izan
zituzten XVIII. mendean punta-puntako zientzialariak
ziren Lavoisier, Joseph Black (1728-1799), Tobern
Oloff Bergman (1734-1784) eta Carl Wilhelm Scheele
(1742-1786) kimikari handiekin; Pariseko Academie
de Sciences erakundeko kidea zen Adanson (1727-
1806) botanikariarekin; Lagrange matematikaria eta
fisikari berritzailearekin...



Louis Joseph Proust (1754-1826). Europeana; Culture.fr/collections; France.

Los caballeros de las provincias vascas hicieron del Real Seminario de Bergara una institución de educación e investigación científica de primer orden. En él se diseñó y se puso en práctica, bajo las órdenes del gobierno de Carlos III, un plan de espionaje industrial en Europa, protagonizado por Juan José Elhuyar (1754-1796) e I. Montalvo; el Seminario estuvo en contacto con los científicos europeos más reconocidos de la época; reunió un grupo de profesores e investigadores de élite; fue precursor en la enseñanza de nuevos campos de conocimiento denominados “Química y Metalurgia” o “Mineralogía y Ciencias Subterráneas”; conformó valiosas colecciones mineralógicas y zoológicas; creó un jardín botánico; y contó con laboratorios de física y química excelentemente dotados.

Los directores del Real Seminario mantuvieron relaciones profesionales con científicos punteros en el siglo XVIII, como los grandes químicos Lavoisier, Jo-

Louis Joseph Proust (1754-1826), kimika modernoaren oinarritzko legeetako bat den Proportzio Definituen Legea aurkitu zuenak, kimikako eskolak emantzuten hemen eta bertako Laboratorium Chemicum montatu zuen.

Bergarako laborategietan Fausto (1755-1833) eta J. J. Elhuyar anaiek wolframioa aurkitu zuten 1783 urtean; urte batzuk beranduago Pierre François Chabaneau-k (1754-1842) platinoa xaflakor egiteko metodo arrakastatsua aurkitu zuen.

Iraultza zientifikoa

Wolframioaren aurkikuntza historia zirragarri eta luzeago baten parte da. Gizakiak ez ditu beti mundua eta unibertsoa berdin ulertu. XVI. mendearen bukaera eta XVIII. mendearen bukaera artean hainbat zientzialarik egindako ikerketa saio eta esperimentuei esker aldatu egin zen ehunka eta ehunka urtetan pentsatutakoa. Iraultza Zientifikoa da aldaketa horren izena.

Lurrak unibertsoan duen lekua ulertzen hasi zen, eta horrekin unibertsoaren egitura orokorraren ikusmolde berri bat sortu zen. Antzina pentsatzen zuten Eguzkiak eta espazioko beste astro guztiek Lurraren inguruan biratzen zutela; sistema geozentrikoa deitutakoan sinisten zuten, beraz. XVI eta XVIII. mendeen bitartean Kopernikoren (1473-1543) -sistema heliozentrikoaren aurkitzailea- Keplerren (1571-1630) -planeta sistemaren legeak ezarri zituen- Galileoren (1564-1642) -heliozentrismoaren eta ikertzeko metodo zientifikoaren bultzatzailea- zientzia lan izugarriari esker, gaur egun jakin badakigu Lurra ez dela unibertsoaren zentroa, aldiz Lurra dela Eguzkiaren inguruan biratzen duena. Newtonek (1642-1727) gainera, unibertso osoa gobernatzen zuten legeak aurkitu zituen goian aipatutakoen teoriak kontutan hartuta eta matematika erabiliz. Newtonen legeen

seph Black (1728-1799), Tobern Oloff Bergman (1734-1784) y Carl Wilhelm Scheele (1742-1786), el botánico Adanson (1727-1806), miembro de la Academia de Ciencias de París, el innovador matemático y físico Lagrange...

Louis Joseph Proust (1754-1826), quien formuló por primera vez una de las leyes básicas de la química moderna, la Ley de las Proporciones Definidas, impartió clases en el Seminario y montó el Laboratorio Chemicum de la institución.

En los laboratorios de Bergara, los hermanos Fausto (1755-1833) y J. J. Elhuyar descubrieron el wolframio en 1783; unos años más tarde Pierre François Chabaneau (1754-1842) halló un exitoso método para lograr la maleabilidad del platino.

La Revolución Científica

La historia del descubrimiento del wolframio forma parte de una historia más larga y emocionante. El ser humano no ha tenido siempre la misma visión del mundo y del universo. Entre finales del siglo XVI y finales del XVIII, se produjo una transformación en el modo de entenderlos y ello fue debido al trabajo, los ensayos y experimentos realizados por un buen número de científicos. Esta transformación recibe el nombre de Revolución Científica.

Se empezó a entender el lugar que la Tierra ocupa en el universo, surgiendo así una nueva perspectiva sobre la estructura del mismo. Antiguamente se pensaba que el Sol junto con el resto de los astros del espacio giraba alrededor de la Tierra; es decir, se creía en la existencia de un sistema geocéntrico. Gracias a la gran labor científica realizada entre los siglos XVI y XVIII por Copérnico (1473-1543) -descubridor del sistema heliocéntrico-, Kepler (1571-1630) -que esta-



Gregory teleskopioa (AZT-0193), Claude Parisek egina. Bera Frantziako XVIII. mendeko teleskopio egile onenetarikoa izan zen. 2010. urtean zaharberritua.

Telescopio de Gregory (AZT-0193), obra de Claude Paris, uno de los principales constructores de telescopios franceses del siglo XVIII. Restaurado en 2010.

arabera, objektuak higitzen dira beraien gainean eragiten duten indarren ondorioz, zehaztasunez neurtu eta ekuazio matematikoen bidez adierazi daitezkeenak. Honela, unibertsoaren ikusmolde aristotelikoa definitiboki zokoratzea lortu zuten.

Aldatu egin zen, bai aldatu ere, ikertzeko modua. Metodo zientifiko berrian funtsezkoak izango dira: naturaren, ingurunearen eta fenomenoaren behaketa eta neurketa sistematikoak egitea; horien ondorioak ateratzea, legeak aurkitzea eta matematikaren bidez adieraztea; eta lege horiek laborategi tresneriaren laguntzaz egindako esperimenduekin frogatzea.

XVIII. mendearen bigarren erdian iraultza zientifikoa azken urrats garrantzitsua eman zen Europan: Kimika berria sortu zen, lehen aurrekariak Boyle (1627-1691) zientzialariaren ekarpenak izanik. Orduetik aurrera, zientzialariek teoria, lege eta kontzeptu kimiko berriak asmatzen eta aurkitzen joan ziren, gaur egun zientifikoki zuzenak kontsideratzen direnak, eta horiek guztiek kimika modernoaren oinarria eta funtsa prestatu zuten.

bleció las leyes del sistema planetario- y Galileo (1564-1642) -defensor del heliocentrismo y del método científico de investigación-, hoy sabemos que la Tierra no es el centro del universo, sino que es la Tierra la que gira alrededor del Sol. Además, Newton (1642-1727), basándose en las teorías de los científicos citados y utilizando la matemática, descubrió el conjunto de leyes que regía todo el universo. Según las leyes de Newton los objetos se movían porque eran empujados por fuerzas que podían ser medidas con precisión y expresadas a través de ecuaciones matemáticas. Con todo ello, la concepción aristotélica del universo quedó definitivamente arrumbada.

Por otro lado, ya se ha apuntado, el modo de investigar también se transformó. Los fundamentos del nuevo método científico son la observación de la naturaleza, del entorno y de los fenómenos, y la realización de mediciones sistemáticas, y a partir de ello la deducción de conclusiones, el descubrimiento de leyes, su expresión matemática, y su comprobación mediante la experimentación con ayuda de instrumental de laboratorio.

En la segunda mitad del siglo XVIII, Europa vivió el último paso de la Revolución Científica: el descubrimiento de la Química moderna, cuyos primeros antecedentes se deben situar en las aportaciones del científico Boyle (1627-1691). Desde entonces los científicos fueron descubriendo y creando un conjunto de teorías, leyes y conceptos químicos que hoy sabemos son científicamente correctos, y que prepararon lo que será la base y fundamento de la química moderna.

De acuerdo con el modelo de pensamiento general anterior, la materia estaba compuesta por cuatro elementos -fuego, tierra, agua y aire- y sus distintas combinaciones, tal y como defendió Empédocles en la antigua Grecia. Así mismo, se pensaba que los metales contenían alma o espíritu en su interior. Gracias a





Dilatometroa (AZT-0174), Juan Gonzalezek egina 1772. urtean. 1793 eta 1797ko inbentarioetan aipatua. 2001ean zaharberritua.

Dilatómetro (AZT-0174), construido por Juan González en el año 1772. Mencionado en los inventarios de 1793 y 1797. Restaurado en 2001.

Lehengo pentsamolde nagusiaren arabera, materia lau elementuez -sua, lurra, ura eta airea- eta horien arteko nahasketa desberdinez osatuta zegoen, antzinako Greziako Empedoklesek defendatu zuen bezala. Horrekin batera ere pentsatzen zuten metalek arima edo espiritua zutela bere barnean. Kimika berriari esker, alkimia eta materia ulertzeko beste ideia zaharrak zokoratu ziren. Gaur egun, 118 elementu kimiko ezagunak dira. Elementu kimiko horiek unibertsoko materia solido, likido zein gas mota desberdinak osatzen dute. Izan ere, orain badakigu unibertsoko materia atomo-mota desberdinez osatuta dagoela, elementu kimikoak deitzen diren horiez.

Bergara kimika modernoaren sorreran murgilduta

Kimika modernoaren sorrerako protagonistak Pariseko, Suediako, Alemaniako eta Britainia Handiko zientzia-gune nagusiak izan ziren. Horiekin batera Bergarak ere Kimika modernoaren sorreran hartu zuen parte, bertako Errege Seminarioari esker.



Antoine Laurent Lavoisier (1743-1794). Europeana; Culture.fr/collections; France.


la Química moderna, se abandonaron la alquimia y otras formas antiguas de entender la materia. Actualmente sabemos que la materia del universo en sus diferentes estados, sólido, líquido o gaseoso, está compuesta por distintos tipos de átomos, de los que conocemos 118, que se denominan elementos químicos.

Bergara y el nacimiento de la química moderna

Los protagonistas principales del nacimiento de la Química moderna fueron los grandes centros científicos de París, Suecia, Alemania y Gran Bretaña. Junto con ellos, también Bergara intervino en su nacimiento, gracias al Real Seminario establecido en la localidad.

En París, el protagonista principal fue Lavoisier (1743-1794) quien apoyándose en todas las aportaciones científicas anteriores que acabamos de comentar estableció las bases de la química moderna: la ley de la conservación de la materia, la nueva nomenclatura y la definición de los elementos químicos, junto a la representación de reacciones químicas a través de ecuaciones. En resumen, logró implantar la precisión en química, la capacidad de representación de las reacciones químicas y el método científico, refutando así teorías vigentes de la época como la del flogisto.

En esta era en la que la teoría del flogisto comienza a ser abandonada por los químicos, en Suecia, importante polo de trabajo científico, el desarrollo de la minería y de la mineralogía propició el surgimiento de diferentes Escuelas para la formación de químicos. Estas academias realizarán a lo largo del siglo, numerosos aportes en el análisis de minerales y en la comprensión y gobierno de los procesos de su reducción. Ello traerá como consecuencia que el ideal alquimista de transformar metales nobles en oro sea enterrado definitivamente. El más notable represen-



Bergarako Zabala etxea Bidekurutzeta kalean aurkitzen zen eta bertan antolatu zuten Laboratorium Chemicum-a.

La casa Zabala se encontraba en la calle Bidekurutzeta de Bergara. En dicha mansión fue instalado el Laboratorium Chemicum.

Parisen, protagonista nagusia Lavoisier (1743-1794) izan zen eta goian aipatu ditugun ekarpen zientifikoak egiaztatuz kimika modernoaren oinarriak ipini zituen: materiaren kontserbazio legea; elementu kimikoen nomenklatura eta definizio berria; eta ekuazioen bidezko erreakzio kimikoen adierazpena. Laburbilduta, kimikan zehaztasuna, erreakzio kimikoen espikazio ahalmena eta metodo zientifikoa ezartzea lortu zuen, eta ondorioz, garaian indarrean zeuden hainbat teoria, flogistoarena adibidez, gezurtatzea lortu zuen.

tante de la generación de químicos suecos de esta época fue Scheele, que además de investigar la composición química de gran cantidad de minerales, analizó los gases que se producen en las reacciones químicas, fundamentales éstas para el desarrollo de la química neumática. Y junto a él tenemos en Suecia otro químico famoso, Bergman quien estableció las bases del análisis químico. Por otro lado, en Alemania hay que destacar, entre otras, la escuela Bergakademie de Freiberg, una de las primeras escuelas de minería de Europa, muy reputada por la educación técnico-científica que en ella se impartía.

No podemos olvidar bajo ningún concepto que la química moderna es deudora también en gran medida de los investigadores británicos Black, Henry Cavendish (1731-1810) y Joseph Priestley (1733-1804), quienes profundizaron en la composición química de los gases, logrando obtener una perspectiva moderna de la naturaleza de los mismos.

En esta época en la que la Química vivía la revolución que estamos comentando, los hermanos Elhuyar realizaron su gran aportación. Entonces, cuando se empezaba a completar con bastante rapidez el cuadro de los elementos químicos -cuadro que se encargaría de ordenar y de sistematizar mucho tiempo después Mendeleiev (1843-1907)- Juan José y Fausto Elhuyar comunicaron al mundo el descubrimiento de un nuevo elemento químico, el wolframio.

Fue en las instalaciones que creó la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País en Bergara, con unas infraestructuras técnicas excelentes y en un ambiente intelectual apropiado, donde los hermanos Elhuyar, siguiendo las directrices de los químicos suecos antes citados y aplicando los conocimientos adquiridos en Alemania, pudieron dedicar largo tiempo a la investigación de los minerales. Es en este contexto en el que debemos situar el descubrimiento del wolframio.

Kimikariek flogistoaren teoria baztertzen hasi ziren aro hartan, Suedian, zientzia-gune garrantzitsuan, meatzari-tzaren eta mineralogiaren garapenak kimikarien pres-takuntzarako hainbat ikastetxeren sorrera eragin zuen. Akademia hauek mendean zehar, mineralen analisisen, ezagutza eta erredukzio prozesuen inguruan ekarpen ugari egin zituzten. Ezagutza hauei esker, alkimistek metal nobleak urre bihurtzeko zuten eredia era bat baztertzea lortu zen. Garai honetako kimikari suedia-rraren artean, Scheele izan zen gehien nabarmendu zena, mineral askoren konposaketa kimikoa ikertzeaz gain, erreakzio kimikoetan sortzen diren gasak aztertu zituelako. Kimika pneumatikoaren garapenerako fun-tsezkoak izan ziren bere lanak. Berarekin batera Bergman da Suediako beste kimikari ospetsua, analisi kimikoaren oinarriak ezarri zituenak. Alemania aldean berriz, azpimarratzekoa da besteak beste, Freibergeko Bergakademie eskola, Europako lehenengoetariko meategi eskola, oso goraipatua bertan ematen zen hezkuntza tekniko-zientifikoagatik.

Ez dugu inolaz ere ahaztu behar kimika modernoak asko zor diola Britainia Handiko Black, Henry Ca-vendish (1731-1810) eta Joseph Priestley (1733-1804) ikerlariari; beraiek gasen konposaketa kimikoan sa-kondu eta gasen izaeraren ikuspegi modernoa izatea lortu zuten.

Elhuyar anaiek bere ekarpen handia egin zuten kimika esandako iraultza handi honetan murgilduta zegoen garaian. Elementu kimikoen taula oso azkar osatzen hasi ziren garai honetan -askoz ere beran-duago Mendeleiev-ek (1843-1907) ordenatu eta siste-matizatu zuen taula hain zuzen ere-, Juan Jose eta Fausto Elhuyarrek elementu kimiko berri baten aur-kikuntza ezagutzera eman zuten, wolframioa.

Elhuyar anaiek, lehen aipatutako kimikari suediarren ildoak jarraituz eta Alemanian lortutako ezagutzaz baliatuz, mineralen ikerketen inguruan aritu ahal izan



Wolframitak. Jatorria: Zinnwald, Erzgebirge, Bohemia, Alemania.

Wolframitas. Procedencia: Zinnwald, Erzgebirge, Bohemia, Alemania.

En estas mismas instalaciones trabajó igualmente el profesor Chabaneau, que es recordado por haber sido el pionero en la purificación del platino, y por ello es generalmente considerado el descubridor de ese elemento.

Wolframio, hermanos Elhuyar; Platino, Chabaneau

La importancia del Real Seminario de Bergara a nivel universal proviene precisamente del aislamiento del wolframio, como descubrimiento reseñable en la historia de la Química. Los hermanos Elhuyar, tras haber trabajado durante todo el verano de 1783 en los laboratorios del Seminario consiguieron descubrir el wolframio, en una época en la que solamente se conocían 24 elementos químicos. El Real Seminario es la única institución de la Península en donde se ha descubierto un nuevo elemento químico. Los laboratorios pertenecientes al Seminario estaban excelentemente equipados con instrumental puntero y con hornos capaces de alcanzar muy altas temperaturas. Así lo reconoció el químico sueco Nicolas Thumborg (1747-1795) quién llegó a Bergara en 1788: “Laboratorium Chemicum... es un edificio aparte muy grande y bastante bien instalado. Instrumentos y material precioso no faltan. Cuando me hicieron el inventario me quedé grandemente sorprendido, pues no habiendo visto más que los laboratorios de Upsala y Estocolmo, me atrevo a

zuten denbora luzez Euskalerrriaren Adiskideen Elkartek Bergaran sortu zituen instalazioetan, azpiegitura tekniko bikainak eta giro intelektual aproposak zeuzkatenak. Testuinguru horren barruan kokatu behar da Wolframioaren aurkikuntza.

Instalazio hauetan ere Chabaneau irakasleak platinoa purifika-tzea lortu zuen lehen aldiz. Horregatik kontsideratzen dute askotan Chabaneau elementu kimiko horren aurkitzailea.

Wolframioa, Elhuyar anaia; Platinoa, Chabaneau

Wolframioaren aurkikuntzak ematen dio Bergarako Errege Seminarioari garrantzia maila unibertsalean; izan ere, Kimikaren historian gertaera nabarmena da. Elhuyar anaiek 1783ko uda osoan Seminarioko laborategietan lanean jardun ondoren, wolframioa deskubritzea lortu zuten, orduan soilik 24 elementu kimiko ezagutzen zirenean. Errege Seminarioa da penintsula mailan elementu kimiko berri bat aurkitu duen erakunde bakarra. Seminarioak oso ondo hornitutako laborategiak zeuzkan, puntako tresneriarekin eta oso tenperatura altuak lortzeko gaitasuna zeukaten labeekin. Nicolas Thumborg (1747-1795) kimikari suediarak hala adierazi zuen 1788an Bergarara iritsi zenean: “Laboratorium Chemicum...es un edificio aparte muy grande y bastante bien instalado. Instrumentos y material precioso no faltan. Cuando me hicieron el inventario me quedé grandemente sorprendido, pues no habiendo visto más que los laboratorios de Upsala y Estocolmo, me atrevo a decir que aquellos no son más que una cuarta parte en comparación con este” [SILVÁN, L.: Los estudios científicos en Vergara a fines del s. XVIII. El químico Luis José Proust 1754-1826, 1992; p.118].

Esan bezala, Bergarako laborategietan aurkitu zuten Elhuyar anaiek wolframioa. Elhuyar anaien aurki-

decir que aquellos no son más que una cuarta parte en comparación con este” [SILVÁN, L.: Los estudios científicos en Vergara a fines del s. XVIII. El químico Luis José Proust 1754-1826, 1992; p. 118].

Como antes hemos señalado, de los 118 elementos químicos que componen el universo y que conocemos hoy en día, sólo unos 90 existen en la naturaleza. En el descubrimiento de dichos elementos químicos han participado solamente 13 países, entre los que se encuentran, como más importantes, Alemania, Francia, Reino Unido, Suecia y Estados Unidos. A España la bibliografía le atribuye solamente el descubrimiento de tres elementos químicos: el wolframio, el vanadio (atribuido también a Suecia) y el platino (descubierto en 1735 en la actual Colombia).

Tal y como reconoce la historiografía de la ciencia, el descubrimiento del wolframio, en los laboratorios del Real Seminario de Bergara, constituye una gran aportación para el patrimonio universal de la humanidad. Sin duda, se trata de la aportación más importante y universal que haya hecho nunca Nuestro País al campo de la ciencia.

En esa misma época, el francés P.-F. Chabaneau, profesor e investigador en el Real Seminario de Bergara, logró otro descubrimiento importante. Hasta los años 80 del siglo XVIII, al platino no se le daba gran importancia; dado que no se le habían encontrado aplicaciones prácticas, solía ser despreciado. En las minas, el platino se encontraba junto al oro y al diamante, en forma de polvo o esponja, y al tener el punto de fusión alto, era muy difícil obtenerlo en estado puro. Chabaneau, impulsado por las amplias posibilidades de utilización que vislumbró en el platino, consiguió descubrir un método sencillo y eficaz para eliminar sus impurezas. Así consiguió en el Seminario el primer lingote fabricado con la masa pura y maleable de este elemento químico.

kuntza funtsezko ekarpena izan zen elementu kimikoen taula osatzeko garaian. Horregatik, aurkikuntza hori egin eta gero, berehala mundu guztiari ezagutzera eman zioten idatzi zientifiko baten bidez.

Lehen esan dugun bezala, unibertsoa osatzen duten 118 elementu kimiko ezagutzen dira gaur egun, eta gure Planetan horietako 90 inguru era naturalean aurkitzen dira. Elementu kimiko horien aurkikuntzan 13 herrik soilik parte hartu dute eta nagusien artean Alemania, Frantzia, Erresuma Batua, Suedia eta AEBak aurkitzen dira. Espainiari 3 elementu kimikoen aurkikuntza soilik egozten dio bibliografiak: Wolframioarena, Vanadioarena (Suediari ere egozten zaiona) eta Platinoarena (gaur eguneko Kolonbian aurkitua 1735. urtean) hain zuzen ere.

Wolframioa Bergaran aurkitu zen eta zientziaren historiografian onartzen den bezala, Errege Seminarioko laborategietan egindako aurkikuntza hau gizakiaren ondare unibertsalari egiten zaion ekarpen garrantzitsu bat da. Dudarik gabe, Wolframioaren aurkikuntza da Gure Lurraldeak inoiz zientzia arloan egin duen ekarpen handiena eta unibertsalena.

Garai honetan ere beste aurkikuntza garrantzitsua lortu zuen Bergarako Errege Seminarioko irakaslea eta ikerlaria zen P.-F. Chabaneau frantsesak. XVIII. mendearen 80ko hamarkada arte platinoari ez zitzaion garrantzi handirik ematen eta, ezin zitzaiolako aplikazio praktikorik bilatu, baztertu egiten zen. Metalzariak errearekin eta diamantearekin batera aurkitzen zuten platinoa hauts edo esponja moduan, eta urtze puntu altua duenez oso zaila zen era puruan lortzea. Chabaneauk, platinoak eduki zitzakeen erabilpen anitzak igarri zituen eta horrek bultzatuta, ez-purutasunak kentzeko modu erraz eta eraginkorra aurkitzea lortu zuen. Horri esker elementu kimiko honen masa puru eta xaflakorrez egindako lehenengo lingotea egin zuen Seminarioan.



Fausto Elhuyar (1755-1833). Ustez Mengsek egina 1788an.

Fausto Elhuyar (1755-1833). Atribuido a Mengs, 1788.

Este descubrimiento realizado en Bergara abrió las puertas al uso industrial del platino, que se convirtió desde entonces en un metal preciado y de gran valor en todo el mundo. Tan valioso llegó a ser que el rey ordenó a Chabaneau mantuviera su descubrimiento en secreto, pretendiendo así mantener bajo su dominio el monopolio de la producción del platino purificado.

EL DESCONOCIDO Y FÉRTIL SIGLO XIX

El paso de centuria

En los últimos lustros del siglo XVIII, el esplendor ilustrado se fue apagando así en el País como en la monarquía. El Conde de Peñaflorida murió en 1785 y tres años más tarde sucedió lo mismo con Carlos III. La situación internacional (Revolución francesa a partir de 1789), la afloración de los problemas hacendísticos y la controvertida gestión de Godoy bien



Juan Jose Elhuyar (1754-1796). Miguel Okinaren marrazkia.

Juan Jose Elhuyar (1754-1796). Dibujo de Miguel Okina.

Bergaran egindako aurkikuntza honek atek ireki zizkion platinoaren erabilgarritasun industrialari, eta ordutik hona platinoa metal preziatua eta balio oso handikoa da mundu guztian. Hain pasa zen baliotsua izatera, erregeak Chabaneauri agindu ziola bere aurkikuntza sekretuan gordetzeko, platino purifikatuaren ekoizpenaren monopolioa bere esku nahi zuelako.

XIX. MENDEA: EZEZAGUN BEZAIN EMANKOR

Mende batetik bestera

XVIII. mendeko azken bosturtekoetan, ilustrazioaren distira itzaltzen joan zen, bai Euskal Herrian, bai erre-suma osoan. Peñafloidako kontea 1785ean hil zen, eta handik hiru urtera Carlos III.a. Kontuan izanda nazioarteko egoera (Frantziako Iraultza 1789tik aurrera), sortu ziren ogasun-arazoak, eta Godoyk eramane zuen kudeaketa eztabaidagarria -bai Estatuko eta Despatxuko lehen idazkari gisa, bai Generalisimo



Pierre François Chabaneau (1754-1842). L. Lascurainen marrazkia.

Pierre François Chabaneau (1754-1842). Dibujo de L. Lascurain.

como primer secretario de Estado y del Despacho, bien en su calidad de Generalísimo, sumieron al reinado de Carlos IV en una época oscura.

Tras la Guerra contra la Convención Francesa (1793-1795), que obligó al cierre temporal del Seminario, este fue reabierto. Pero el episodio de la fractura político-institucional de Gipuzkoa y la propuesta de su configuración como territorio independiente bajo protección de la joven República vecina acaecidos durante este conflicto militar, provocarían que las Provincias Vascongadas fueran observadas con recelo desde la Corte, de la que, por otra parte, habían desaparecido, desde el año 1801, la mayoría de los personajes afectos al movimiento ilustrado. Así, la Sociedad Bascongada, mucho menos vigorosa que en tiempos del conde fundador, vio como se le arrebató, en 1804, la gestión del Real Seminario de Bergara, que pasó a depender directamente del Gobierno con la nueva denominación de Real Seminario de Nobles.

gisa-, horien guztien eraginez Carlos IV.aren erregealdia garai ilun batean murgildu zen.

Frantziako Konbentzioaren aurkako Gerran (1793-1795) halabeharrez Seminarioak aldi batez itxi egin behar izan bazuen ere, ondoren berriz zabaldu zen. Hala ere, gatazka militar horretan zehar gertatutakoen eraginez -hau da, Gipuzkoako apurketa politiko-instituzionalaren gertakaria, eta Gipuzkoa lurralde independente gisa aldameneko Errepublika gaztearen babespean gelditzeko proposamena izan ondoren-, Gorteak ez zituen begi onez ikusi Euskal Probintziak; eta gainera, mugimendu ilustratuaren zale gehienak jadanik ez zeuden Gortean, 1801ez geroztik.

Horrenbestez, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteari, konde sortailearen garaian baino dezente ahulago zegoen horretan, 1804. urtean kendu egin zioten Bergarako Errege Mintegiaren kudeaketa. Eta harrezkero, zuzenean Gobernuaren menpe egotera pasatu zen izen berri batekin: Nobleen Errege Mintegia ("Real Seminario de Nobles").

Askok uste dute Seminarioa hezkuntza- eta zientziagune ospetsu eta maila handikoa bakarrik Ilustrazioan eta Peñaflozidaren garaian izan zela. Kontuan hartzen bada, batetik, 1804. urtean titularitate-aldaketa hori gertatu zela, bestetik hemeretzigarren mendeko historia gorabeheratsua eta nahasia izan zela, bai Euskal Herri bai Espainia mailan, eta hirugarrenik, mende honetan gerra-aldien segida etengabea izan zela, ondorioz pentsa daiteke Bergarako erakunde honek XIX. mendean zehar iraun besterik ez zuela egin hala-hola eta nekez. Baina eskuragarri dagoen informazioa aztertu ondoren, berriz, alderantzizkoa egiaztatu da bete-betean.

Euskal Lizeoa

Napoleonen gerra-aldiko urteak, benetan, oso zailak izan ziren Errege Mintegiarentzat. Gure lurraldea 1808tik



*Fernando VII.a. Europeana; Espainiako Liburutegi Nazionala.
Fernando VII. Europeana; Biblioteca Nacional de España.*

Está bastante extendida la idea de que el período en el que el Seminario fue un centro educativo y científico de gran fama y nivel se limita a la época de Peñaflozida y la Ilustración. El ya mencionado cambio de titularidad acaecido en 1804, la azarosa e intrincada historia decimonónica tanto a nivel vasco como español y la sucesión de episodios bélicos tienden a hacer pensar que durante el XIX la institución bergaresa no llevó más que una oscura y penosa existencia. El análisis de la información disponible demuestra justamente lo contrario.

Liceo Vascongado

Los años de la guerra napoleónica fueron ciertamente difíciles para el Real Seminario. Ocupado nuestro te-

aurrera okupatu zuten, eta bertako biztanleek aurre egin behar izan zizkieten erreforma militarrei, fiskalitate gero eta itogarriago bati, eta baita inbaditzaileen nahiz horien aurkakoen bidegabekeria bortitzei ere. Napoleonek Espainiako tronua Jose anaiari eman zion, baina 1810ean, Ebro ibaitik gorako ipar-aldeko lur guztiak Frantzia sartzea erabaki zuen, eta harrezkero hiru probintzietako etorkizuna gidatzeko Bizkaiko Gobernua ezarri zuen, Thouvenot generala bertako buru izendatuta. Horren agindupean, Bergarako ikastetxea ez zen itxi -erresumako eskola eta katedra tekniko-zientifiko gehienetan alderantziz gertatu bazen ere-, eta horrenbestez, lanean jarraitu ahal izan zuen, hasieran Bizkaiko Lizeoa izenez (“Liceo de Vizcaya”), eta gero Euskal Lizeoa izenez (“Liceo Vascongado”).

1813. urteko udan, Gasteiz, Donostia eta San Martzial gudak izan ondoren, Napoleonen okupazioa bukatu egin zen, eta horren aurrean Fernando VII.a, Carlos IV.aren oinordekoa, penintsulara sartzeko prestatu zen. Hori 1814. urtearen hasieran gertatu zen, eta urte bereko maiatzean, nazioarteko gertakariak aztertuta bere burua indartsu ikusi zuenean, eta erresuma-barruan eragin eta botere handiko pertsona asko bere alde zeudelako babestuta sentitu zenean, dekretu baten bidez 1812ko Konstituzioa baliogabetu zuen, eta horrekin batera baita Espainiako liberalek Cadizeko Gortetan -nahiz eta frantsesak erresumaren zati handiengan egon- eratu ahal izan zuten legegintza-lan guztia ere. Horrela hasi zen Fernando VII.aren erregealdiko lehenengo epealdi absolutista (1814-1820).

Garai honetan, Noblean Errege Seminarioak aurretik izan zuten ospea berreskuratu eta ikasle asko erakarri zituen, baita itsasotik haratagoko lurraldeetakoak ere. Hain zuzen ere, 1815. urtean Gobernuak diru-fondo batzuk izendatu zituen gure erakunderako; horiei esker, eraikinean hobetze-lanak egin ziren, laborategiak eta kabineteak hobeto hornitu ziren, eta katedrak berrezarri ziren. Paraleloki, esan dugun moduan, ikas-

territorio desde 1808, sus habitantes tuvieron que hacer frente a las requisas militares, a una fiscalidad cada vez más agobiante y a las violentas arbitrariedades de invasores y de quienes a ellos se oponían. Napoleón entregó el trono español a su hermano José, pero en 1810 decidió incorporar a Francia las tierras situadas al norte del Ebro, y para regir en adelante los destinos de las tres provincias instauró el Gobierno de Vizcaya al frente del cual situó al general Thouvenot. Bajo su mandato la institución docente bergaresa, a diferencia de la mayoría de las escuelas y cátedras técnico-científicas del reino, no fue clausurada y pudo seguir desarrollando su labor bajo el nombre de Liceo de Vizcaya primero y Liceo Vascongado después.

En el verano de 1813, con las batallas de Vitoria, San Sebastián y San Marcial, terminó la ocupación napoleónica, ante lo cual el hijo y sucesor de Carlos IV, Fernando VII, se dispuso a entrar en la península. Eso ocurrió a comienzos de 1814, y en mayo de ese mismo año, cuando las circunstancias internacionales le hicieron sentirse fuerte y al verse arropado por un buen número de influyentes y poderosos partidarios suyos en el interior, abolió mediante un decreto la Constitución de 1812 y toda la labor legislativa que los liberales españoles habían conseguido armar en las Cortes de Cádiz a pesar de la presencia francesa en la mayor parte del reino. Comenzaba así el primer período absolutista de su reinado (1814-1820).

En esta época el Real Seminario de Nobles reconquistó su antigua fama y atrajo a numerosos alumnos, incluso de los territorios allende los mares. Efectivamente, en 1815 el Gobierno asignó fondos para nuestra institución, gracias a los cuales se realizaron obras de mejora en el edificio, se enriquecieron laboratorios y gabinetes y se restablecieron cátedras. De manera paralela, tal y como se ha indicado, creció el interés por cursar las

ketak Bergaran egiteko interesa piztu egin zen, eta ikastetxeak mugatu behar izan zuen zenbat seminarista edo barneko ikasle har zitzakeen gehienez (132); ikasle-kopuru hori etengabe bete zen 1822. urtera arte. Garai on hauetan “los alumnos procedentes del Seminario de Vergara, ingresaban en las escuelas facultativas del Estado y en las Universidades, elevando su nombre a gran altura, y llegó a ser proverbial que el mejor colegio de España era el de Vergara” [URIARTE, Carlos: Memoria leída... Instituto Provincial de Guipúzcoa (en Vergara); Donostia, 1871; 12 or.]

Unibertsitate Probintziala

1819. urtearen erdialdetik aurrera, Cadiz inguruan armada handi bat batzen ari ziren Amerikara eramateko eta han matxinatutako koloniak menderatu ahal izateko. 1820ko urtarrilaren 1ean, armada horretako komandante batek, Rafael de Riegok, Fernando VII.aren erregimen absolutistaren aurka altxatu eta handikiro aldarrikatu zuen ordura arte indargabetuta zegoen 1812ko Konstituzioa berriz ezarrita gelditzen zela. Erregea, hasieran, zain gelditu zen; baina, ikusita Gortean liberalak konspirazio-mugimenduetan zebiltzala eta hiri garrantzitsu batzuetan matxinadak izan zirela, halabeharrez Konstituzioa berriz indarrean jarri zuen eta baita bere burua ere haren menpe jarri (martxoaren 7an eta 9an). Horrela hasi zen Hirurteko Liberala izenez ezagutzen dugun epealdia (1820-1823).

1821eko ekainaren 29an Gorteen onartu egin zuten Instrukzio Publikoaren Erregelamendu Nagusia. Araudi honen helburua zen irakaskuntza-arloa egituratu, normalizatu eta bateratzea, ikastetxe-motaren arabera ezberdintasunak kentzeko eta horietan ematen ziren ikasketen heterogeneotasunarekin bukatzeko asmoz. Araudi honek 22. artikuluan ezartzen duenez, Bigarren Mailako Hezkuntza “se proporcionará en establecimientos a que se dará el nombre de

enseñanzas en Bergara, y el centro tuvo que fijar en 132 el número máximo de seminaristas o estudiantes internos a acoger, cupo que completó ininterrumpidamente hasta el año 1822. En este período de bonanza “los alumnos procedentes del Seminario de Vergara, ingresaban en las escuelas facultativas del Estado y en las Universidades, elevando su nombre a gran altura, y llegó a ser proverbial que el mejor colegio de España era el de Vergara” [URIARTE, Carlos: Memoria leída... Instituto Provincial de Guipúzcoa (en Vergara); San Sebastián, 1871; p. 12]

Universidad de Provincia

Desde mediados de 1819 un gran ejército estaba siendo reunido en las inmediaciones de Cádiz con el fin de que embarcase hacia América para sojuzgar a las colonias sublevadas. El día 1 de enero de 1820, uno de los comandantes de aquella tropa, Rafael de Riego, se alzó contra el régimen absolutista de Fernando VII y solemnemente proclamó restaurada la suspendida Constitución de 1812. El rey quedó al principio a la expectativa, pero los movimientos conspiratorios de los liberales en la Corte y los motines que en algunas ciudades importantes se dieron, le forzaron a restablecer la Constitución y someterse a ella (7 y 9 de marzo). Se inició entonces el período que hoy conocemos con el nombre de Trienio Liberal (1820-1823).

Las Cortes aprobaron el 29 de junio de 1821 el Reglamento General de Instrucción Pública que tenía como objetivo estructurar, normalizar y unificar el ramo de la enseñanza para acabar con la disparidad tipológica de centros docentes y la heterogeneidad de los estudios que en ellos se impartían. El texto normativo citado establecía en su artículo 22 que la Segunda Enseñanza “se proporcionará en establecimientos a que se dará el nombre de Universidades de

Universidades de provincia.” [MINISTERIO (1985) Historia de la Educación en España, II. liburukia, 49 or. t. hr.]. 1822an, Bergarako Mintegia Probintziako Unibertsitate izendatu zuten, abenduaren 1eko Errege Aginduaren bidez. Esan dugun bezala, probintziako unibertsitatearena da Espainiako liberalismoak bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egiten duen lehenengo formulazio praktikoa. Bergarako Seminarioa da, beraz, Aro Garaikidean Gipuzkoan bigarren hezkuntzarako sortu zen lehenengo ikastetxe ofiziala.

Ospitale Militarra

Probintziako Unibertsitateak, hala ere, gutxi iraun zuen; kendu egin behar izan zuten 1823ko maiatzean. Fernando VII.a azpikeriatan eta antolaketa-lanetan zebilen, liberalak boteretik kendu, Konstituzioa berriz baliogabetu eta monarkia absolutua ezartzeko. Bere alde talde armatu ugari altxatu ziren nonahi -baita Euskal Herrian ere-, eta nazioarteko laguntza ere bazuen. Izan ere, jadanik 1821eko apirilean talde armatu batzuk altxatu ziren, Araban, Bilbo inguruan eta Gipuzkoako barnealdean, erregimen liberalaren aurka eta 1820. urtetik atzeragoko egoera politikora itzultzearen alde. 1822an erregearen aldeko taldeak gehiago ziren, indartsuagoak, hobeto antolatuak eta harreman onak zituzten Bidasoa ibaiaren beste aldetik konspiraziotan ere zebiltzan kideekin. Gipuzkoan, Gorostidi zuten buru. Gorostidik apurka-apurka lurralde-zati handi bat hartu zuen bere menpe. Azkenean, Europako potentziek parte hartzea erabaki zuten Fernando VII.aren alde; 1823ko apiriletik aurrera, San Luisen Ehun Mila Seme izenez ezagutzen den armada handia Behobiatik sartzen hasi zen, Angulemakoko dukearen agindupean. Urte bereko udazkenean, Angulemakoko dukeak erregea askatu zuen; izan ere, erregea Andaluzian zegoen, hara joatera behartu izan zutelako Gobernuarekin eta Gorteekin batera. Berehala, erregeak baliogabetu egin zituen,



Rafael Maroto jenerala. Buruzagi karlista honek Espartero jeneral liberalarekin Bergarako Komenioa izenpetu zuen 1839. urtean. Europeana; Espainiako Liburutegi Nazionala.

El general carlista Rafael Maroto suscribió con el militar liberal Espartero el Convenio de Bergara en el año 1839. Europeana; Biblioteca Nacional de España.

provincia.” [MINISTERIO (1985) Historia de la Educación en España Tomo II, p. 49 y siguientes]. En 1822 el Seminario de Bergara fue declarado Universidad de provincia mediante Real Orden de 1 de diciembre. Tal y como hemos apuntado, la universidad de provincia es la primera formulación práctica que el liberalismo español realiza de los centros de segunda enseñanza. El Seminario de Bergara es, por tanto, el primer centro oficial de enseñanza secundaria de Gipuzkoa en la Edad Contemporánea.

ofizialki, 1820ko martxoaren 7tik aurrera egin zituzten gobernu-egintza guztiak; horrenbestez, epealdi horretan hezkuntzari buruz ezarri zuten legeria ere indargabetuta gelditu zen. Bergarako ikastetxea, berriz ere, Nobleen Errege Seminarioa deitu zen.

Fernando VII.aren bigarren epealdi absolutistan zehar (1823-1833) eta Lehen Karlistadan zehar (1833-1839), Mintegiak oso garai latzak bizi izan zituen. Lurraldeak gerra-egoera sor batean murgilduta jarraitzen zuen -Lausagarretaren altxamendua; Gasteizeko saiakera ultra-absolutista; muga aldeko konspirazio liberalak-, baina egoera ageri-agerikoa egin zen Fernando VII.a hil ondoren Karlistada hasi zenean. Euskal Herriari dagokionez, Lehen Karlistada bukatu, 1839ko abuztuaren 31n bukatu zen, Bergarako Hitzarmenaren bidez. Hitzarmena Urrutia-Espilla jauregian sinatu zen, Errege Seminariotik gertu. Ordurako, 1835etik aurrera, Errege Mintegia Ospitale Militar bihurtuta zegoen.

Mintegia berriz irekitzea, Gipuzkoako Institutua izateko asmoz

Euskal Herritik kanpo, Karlistada hilabete batzuk gehiago luzatu zen, 1840. urtera arte, Maestrazgo aldean. Gerra bukatutakoan argi ikusi zen, erresumari zegokionez, absolutismoa galtzaile irten zela eta liberalismoa, berriz, erabateko garaile. Eta liberalismoak, jadanik 1834. urtetik aurrera erresumaren botereko ateak nolabait erdi irekita bazituen ere, orduan itxi ahal izan zuen 1808. urtean hasitako iraultza-bide neketsu eta luzea.

1840. urte horretan bertan, irakasle ohi batzuek, Bergarako herritarrek eta Udalak Seminarioko hezkuntza-lanak berriz hastea lortu zuten. Horrela, 1840ko urriaren 1ean hasi ziren berriz ikasketak. Hori lehenengo urratsa baino ez zen izan; lagun horien guztien buruan pentsamendu bat bakarra baitzegoen:

Hospital Militar

La Universidad de Provincia tendría, sin embargo, poca vigencia, ya que hubo de ser suprimida en mayo de 1823. Fernando VII maquinaba y maniobraba para desalojar del poder a los liberales, suspender nuevamente la Constitución y reinstaurar la monarquía absoluta. Tuvo a su favor un sinnúmero de partidas armadas que se habían levantado por doquier -también en el País Vasco- y el apoyo internacional. Efectivamente, ya en abril de 1821 se alzaron en Araba, las inmediaciones de Bilbao y en el interior de Gipuzkoa, grupos armados en contra del régimen liberal y a favor de volver a la situación política anterior a 1820. En 1822 los grupos realistas eran más numerosos, más fuertes, estaban mejor organizados y mantenían fluidas relaciones con compañeros afines que conspiraban desde el otro lado del Bidasoa. En Gipuzkoa los comandaba Gorostidi, quien poco a poco consiguió dominar buena parte del territorio. Finalmente las potencias Europeas decidieron intervenir en pro de Fernando VII y a partir de abril de 1823 un gran ejército conocido con el nombre de Los Cien Mil Hijos de San Luis comenzó a penetrar por Behobia al mando del duque de Angulema. Éste, en otoño del mismo año, liberó al monarca, que había sido obligado a trasladarse junto con el Gobierno y las Cortes a Andalucía. En seguida el rey declaró oficialmente nulos todos los actos de los gobiernos desde el 7 de marzo de 1820, con lo que la legislación que también en materia educativa había sido implantada en el período, quedó sin vigencia. El centro educativo de Bergara había vuelto a denominarse Real Seminario de Nobles.

Durante el segundo período absolutista fernandino (1823-1833) y la Primera Guerra Carlista (1833-1839) el Seminario vivió momentos difíciles. El País continuaba inmerso en un sordo estado bélico -sublevación de Lausagarreta; intentona ultra-absolutista en Vitoria; conspiraciones liberales en la frontera- que

Bergarako Errege Mintegia Probintziako Institutu izenda zezatela. Hori gertatu baino lehen, baina, bost urte luzek pasatu behar izan zuten.

Bitartean, gerra bukatuta egonda ere, ez zegoen egonkortasuna lortzerik. 1840ko iraila eta urria bitartean, Esparterok eta liberalismoaren alde progresistak Gobernuko agintea hartu zuten; bertan zeuden liberal moderatuak bidali eta, horren eraginez, erregina erregeorde Maria Kristina Napolikoa erbestera joan behar izan zen (Fernando VII.aren alarguna eta Isabel II.a izango zenaren ama zen). Esparteroren agintaldia istilutsua izan zen. Hartu zituen neurri batzuk orduko Probintzia Baskongadetako antolaketa politiko eta administratiborako kaltegarriak izango zirela eta Diputazioetako ordezkari gorenak Bergaran batu ziren batzarrean, 1841eko urtarrian, protesta bateratu bat aurkezteko eta elkarrekin estrategia bat gertatzeko. Beranduxeago, urte bereko udazkenean, erresuman Esparteroren aurkako altxamendu militar bat piztu zen, liberal moderatuek babestutakoa; Euskal Herriko agintariek horren alde agertu ziren eta urriaren 10ean Urbiztondo generalak - Gipuzkoako Diputazioaren laguntza zuenak - Espartero agintetik kentzea eta Maria Kristinaren erregeordetza aldira itzultzea aldarrikatu zuen, baita Bergaran ere. Altxamendu militarra suntsitu egin zuten.

Dena den, Esparterori arazoak ugaltu egin zitzaizkion; alderdi progresistaren barruko iskanbilak zirela, liberal moderatuek haren kontra egindako azpilana zela, Bartzelonako altxamendua edo beste hiri batzuetako matxinadak zirela, azkenean, 1843. urtean, Esparterok erbestean bukatu zuen.

Institutua eta Ingeniarien Eskola: Bergarako Errege Seminarioa Zientifiko eta Industrial

1843. urtearen bukaeran, egonkortasun politikoa eka- rri zuen hamar urteko epealdia hasi zen, liberalismo

se hizo sonoro y evidente cuando estalló la Guerra Carlista tras la muerte de Fernando VII. Ésta finalizó, por lo que al País Vasco respecta, el día 31 de agosto de 1839 mediante la firma del Convenio de Bergara en el palacio Urrutia-Espilla situado a escasos metros del Real Seminario, que había sido convertido, desde 1835, en Hospital Militar.

Se reabre el Seminario, que quiere ser el Instituto de Gipuzkoa

Fuera del País Vasco, la Guerra Carlista se prolongó durante algunos meses más, hasta 1840, en la zona del Maestrazgo. El fin de la contienda evidenció, a nivel de la monarquía, la derrota del absolutismo y el triunfo definitivo del liberalismo. Éste, al que ya desde 1834 le fueron entreabiertas las puertas del poder en el reino, dio así fin al largo y tortuoso camino revolucionario iniciado en 1808.

Aquel mismo año de 1840 antiguos profesores, los vecinos de Bergara y el Ayuntamiento consiguieron la reanudación de la labor docente del Seminario, que dio nuevamente inicio a sus estudios el día primero de octubre. Este hecho no era más que un primer paso, ya que en la mente de todas aquellas personas anidaba un único pensamiento: que el Real Seminario de Bergara fuera declarado Instituto Provincial. Debieron de pasar sin embargo cinco largos años hasta que tal cosa ocurriese.

Entre tanto, y aún acabada la guerra, no se alcanzaba la estabilidad. Entre septiembre y octubre de 1840 Espartero y el ala progresista del liberalismo se hicieron con las riendas del Gobierno, expulsando del mismo a los liberales moderados y provocando que la reina regente María Cristina de Nápoles, viuda de Fernando VII y madre de la que sería Isabel II, marchara al exilio. El mandato del general Espartero fue convulso. Tomó una



1849. urtean Errege Seminarioan kokatua zegoen Gipuzkoako Institutuko ikasturteari hasiera emateko Luis Sánchez Toca, Natur Zientzietako katedradunak esandako hitzaldiaren argitalpena.

Publicación del discurso inaugural pronunciado en el Real Seminario e Instituto Provincial por el catedrático de Historia Natural D. Luis Sánchez Toca en el año 1849.

moderatua osatzen zuten familia ezberdinen gidaritzapean. “Hamarkada Moderatua” deitu den hone-tako lehenengo hilabeteetan Isabel II.a erregina aldarrikatu zuten, Guardia Zibila sortu zen, eta 1845eko Konstituzioa, kontserbadorea, indarrean jarri zen. Behin zutabe hauek jarrita, boterean zeuden moderatuek erresuma berritzen eta berregituratzen hasi ziren, estatu moderno eta bateratu bat sortzeko asmoz, horretarako jarraitu beharreko eredu nagusitzat Frantzia zutela. Beste arlo batzuetan gertatu zen moduan, hezkuntzaren antolaketa eta normalkuntza elkarren segidako hainbat plan, lege eta erregelamenduren bidez egin zuten.

serie de medidas que fueron consideradas lesivas para la organización político administrativa de las Provincias Vascongadas, a consecuencia de lo cual los máximos representantes de las Diputaciones se reunieron en Conferencia en Bergara, en enero de 1841, para elevar una protesta común y prepara una estrategia conjunta. Un poco más tarde, en otoño del mismo año, tuvo lugar en el reino un alzamiento militar antiesparterista auspiciado por los liberales moderados; el movimiento fue secundado en el País Vasco por sus autoridades y el día 10 de octubre el general Urbiztondo, al que apoyaba la Diputación de Gipuzkoa, proclamó, también en Bergara, la caída de Espartero y la vuelta a la regencia de María Cristina. El levantamiento militar fue aplastado.

De todas formas, los problemas se le multiplicaron al general y así, las rencillas dentro de la familia progresista, el trabajo soterrado que en su contra hicieron los liberales moderados, la sublevación de Barcelona y los motines en algunas otras ciudades acabaron, en 1843, con Espartero en el exilio.

Instituto y Escuela de ingenieros:

El Real Seminario Científico-Industrial de Bergara

A finales de 1843 comienza un período de diez años de estabilidad política liderado por las diferentes familias que integran el liberalismo moderado. La llamada “Década Moderada”, asistió en sus primeros meses a la proclamación como reina de Isabel II, al nacimiento de la Guardia Civil y a la entrada en vigor de la conservadora Constitución de 1845. Asentados estos pilares, el moderantismo en el poder se embarcó en la tarea de remodelar y reestructurar el reino con la perspectiva de crear un estado moderno y unitario, siendo en ello fundamentalmente Francia el modelo a imitar. Al igual que ocurriera en otros ámbitos, el campo de la educación fue organizado y normalizado mediante sucesivos planes, leyes y reglamentos.

1845eko irailaren 17ko Errege Dekretuaren bidez, Ikasketa Plan Nagusia onartu zen, Pedro Jose Pidal ministroak sustatutakoa. "Plan Pidal" honen asmoa bigarren eta goi mailako hezkuntza arautzea izanik, planari esker Institutu Probintzialak sortu ziren, hau da, maila ertaineko ikastetxeak -probintzia bakoitzeko institutu bana-; horiek, ikastetxeak izateaz gain, probintzia bakoitzean benetako ordezkaritza zientifikoak bilakatu ziren. Orduan bete zen bergarar askok bost urtez izan zuten ametsa: Bergarako Errege Mintegia, ofizialki, Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzako Goi Mailako Institutua izendatu zuten.

Urte batzuk geroago -beste bost honako honetan ere-, Gobernuak erabaki zuen bitartekoak jarri behar zirela orduan sortzen ari zen industriarako koadro teknikoak prestatzen joateko, hau da, industria hasi berri horren arlo ezberdinetako ardura hartzeko moduko teknikariak prestatzeko. Eskola Industrialak ezartzeko Plana Manuel Seijas Lozano ministroak sustatu zuen, eta 1850eko irailaren 4ko Errege Dekretuz onartu zen. Erresuman, ingeniariak trebatzeko lau eskola profesional baino ez ziren sortu; honako hauek hain zuzen: Madril, Bartzelona, Sevilla eta Bergara. Gureari dagokionez, orduan honako hau erabaki zen: "el Instituto de segunda enseñanza y la Escuela industrial formarán un mismo establecimiento al cargo de un director superior" eta "dicho establecimiento llevará el nombre de Real Seminario científico industrial de Vergara." [BUA; Udal fondoa; C/0125].

XIX. mendearen erdiko hamarkadetan zehar, Gipuzkoan heziketa sendoa eta, horrenbestez, ibilbide profesional oparoa izatea nahi zuenak Bergaratik pasa behar zuen derrigor. Izan ere, Euskal Herrian bakarrik Errege Seminarioan ikasita lor zitezkeen orduan hain aurrerakoiak ziren honako titulu hauek: Irakasle Industrial, Ingeniari Mekanikoa, Ingeniari Kimikoa eta Ingeniari Industrial. Merkataritza-Irakasle izateko prestaketa ere lor zitezkeen Mintegian. Baina ez zen



Bergarako Seminarioak bere baitan Gipuzkoako Institutua eta Eskola Industrial hartzen zuen garaiko argitalpena (1856).

Publicación del Real Seminario Científico Industrial de Bergara (1856).

Por Real Decreto de 17 de septiembre de 1845 se aprobó el Plan General de Estudios, promovido por el ministro Pedro José Pidal. Elaborado con la finalidad de regular la educación secundaria y superior, el Plan Pidal creó los Institutos Provinciales como establecimientos de enseñanza media -un único Instituto por provincia- que además de centros de instrucción, desempeñaron el papel de auténticas delegaciones científicas provinciales. Fue entonces cuando se cumplió el deseo que durante un lustro acompañó a tantos bergarese: el Real Seminario de Bergara había sido oficialmente declarado Instituto Superior Guipúzcoano de Segunda Enseñanza.

hor amaitzen heziketa-eskaintza: gure ikastetxeko Matematika Eskola Berezian, Estatuko adituen lanpostu-karreretan -zibil zein militarretan- sartu ahal izateko ikasleek behar zituzten ezagutzak ematen zituzten. Bergarako Mintegia, gainera, urte luzez filosofiako Batxiler titulua lortzeko Gipuzkoan zegoen zentro ofizial bakarra izan zen -titulu hori ezinbestekoa zen gero goi mailako unibertsitateko ikasketak egin ahal izateko-.

Aldi berean, garai honetan Errege Mintegia zientziagune ospetsua da, Aro Garaikidean Gipuzkoan izan den lehenengoa. Honetan aurrerago gehiago sakonduko badugu ere, gogoratu behar da Mintegiak, 1850eko hamarkadaren hasieratik aurrera, lorategi botaniko bat ere izan zuela, modernoa, handia eta ondo hornitua; eta horrekin batera aipatzeko moduko herbario bat ere osatu zuela. XIX. mendeko bigarren hamarkadatik aurrera, Kimikako laborategia eta, batez ere, Fisikako kabinetea ardura handiz berritzen hasi ziren, eta eskola industrialaren garaian zehar nabarmen aberastu zituzten. Tresna zientifikoak eta doitasun-tresnak inportatu egin zituzten, Parisetik eta Londresetik -hauek ziren orduko ekoizpene garrantzitsuenak material zientifikoko mota honi zegokionez-. Eraikinean jarritako behatoki meteorologikoa ere ondo hornituta egon zen. Eta azkenik, Bergaran, Gipuzkoako Institutuan egoitza zuen Probintziako Gauza Naturalen Museoa deitutakoaren fondoak ere Historia Naturaleko bilduma aberatsez zeuden eratuta.

Bi urteko epealdi motzean, progresistek moderatuei boterea kendu zietenekoan (1854-1856), ikaskuntza industrialak berriztatu egin zituzten, modernizatzeko asmoz eta koherenteagoak bihur zitezen. Berrikuntzaren eragilea Francisco Luxan Sustapen Ministroa izan zen. Eskola Industrialen Plan Organikoa eta plana garatzeko Erregelamendua 1855eko maiatzaren 20ko eta 27ko Errege Dekretuen bitartez onartu ziren.

Unos años más tarde, nuevamente cinco, el Gobierno decidió poner los medios para que fueran surgiendo los cuadros técnicos que pudieran ocuparse de los diferentes ramos de la todavía incipiente industria. El ministro Manuel Seijas Lozano impulsó el Plan para el establecimiento de las Escuelas Industriales, plan que se aprobó por Real Decreto de 4 de septiembre de 1850. Se crearon en el reino cuatro únicas escuelas profesionales para la formación de ingenieros: Madrid, Barcelona, Sevilla y Bergara. Por lo que a nuestra localidad respecta, entonces se determinó que en adelante “el Instituto de segunda enseñanza y la Escuela industrial formarán un mismo establecimiento al cargo de un director superior” y que “dicho establecimiento llevará el nombre de Real Seminario científico industrial de Vergara.” [AMB; Fondo municipal; C/0125].

Durante las décadas centrales del siglo XIX quien en Gipuzkoa quisiera hacerse con una sólida formación y por tanto desarrollar una brillante carrera profesional debía necesariamente pasar por Bergara. No en vano el Real Seminario era el único centro vasco en el que se podían cursar los estudios para la obtención de los entonces vanguardistas títulos de Profesor Industrial, Ingeniero Mecánico, Ingeniero Químico e Ingeniero Industrial. También podía obtenerse en el Seminario la formación de Profesor mercantil. No se agotaba aquí la oferta educativa: la Escuela Especial de Matemáticas del establecimiento bergarés dotaba a los alumnos de los conocimientos necesarios para poder acceder a las carreras facultativas del Estado civiles y militares. El Seminario de Bergara fue además durante muchos años el único centro oficial de la provincia donde obtener el título de Bachiller en filosofía, requisito indispensable para estudiar posteriormente las carreras universitarias superiores.

Paralelamente en esta época el Real Seminario se nos muestra como destacado centro científico, el primero que en la Edad Contemporánea existirá en Gipuzkoa.

Legedi berriak ekarritako beste ondorio batzuen artean, Valentzia ere sartu egin zen Eskola Industrial Profesional bat zuten hirien talde txiki-bitxian; Bergarak ere bertan jarraitzen zuen.

1856ko urrian moderatuek boterea berreskuratu zuten, eta harrezkero ez zuten utzi Isabel II.a erori arte 1868an. Urtebete geroago, 1857ko irailaren 9an, Instrukzio Publikoaren Legea ateratu zen, Moyano Legea deitu zena. Horren bitartez, Gobernuak gauzatu ahal izan zuen aurreko beste ministerio-kabineteek landuta zuten honako asmo hau: batu, lege-testu bakar batean, hezkuntza-arloa arautzeko zeuden lege eta plan ezberdin guztiak -hezkuntza ordura arte zatika, sektoreka edo atalka arautzen zutenak, alegia-. Lege horrek Eskola Industrialak ere arautu zituen; Gijon-en 1856an irekitako eskola berri bat berretsi zuen.

Arazo ekonomikoak zirela, eta ikasketa industrialek erakarritako ikasle-kopurua aurretik pentsatutakoa baino askoz ere txikiagoa zela, apurka-apurka ikastetxe hauek ixten joan ziren. 1860an utzi egin zioten jarduteari Bergarako eta Gijoneko eskola industrialek, eta 1867. urterako beste guztiak ere itxita zeuden, Bartzelonakoa izan ezik.

Telesforo Monzon eta Mariano Jose de Laskurain

Eskola industrialaren itxierak ez zuen ekarri, pentsa zitekeenaren aurka, krisi-garairik Errege Seminarioaren bizitzara; eraikina birmoldatu eta handitu zen eta 1866 eta 1868 urteen artean fatxada berria eraiki zen (gaur egungoa). Lan horiei esker, bertan zegoen Gipuzkoako Institutu Probintzialak, toki zabalagoak, prestatuagoak eta modernoagoak izan zituen. Horrez gain, Institutuak kabineteak berriztu zituen tresna zientifiko berriak erosiz eta behatoki meteorologikoa suspertu zuen.

Aunque profundizaremos en ello más adelante, recordemos que el Seminario se dotó, desde comienzos de la década de 1850 de un moderno, amplio y bien equipado jardín botánico y conformó un herbario digno de mención. El laboratorio de química y sobre todo el gabinete de física comenzaron a ser concienzudamente renovados ya a partir de la segunda década del siglo XIX y notablemente enriquecidos durante el período de la escuela industrial. Los instrumentos científicos y de precisión se importaron de París, junto con Londres, el centro más importante de producción de este tipo de material científico. También estuvo técnicamente bien equipado el observatorio meteorológico que se construyó en el edificio. En fin, ricas colecciones de historia natural constituyeron los fondos del denominado Museo de las cosas naturales de la provincia, con sede en el Instituto Guipuzcoano de Bergara.

Dentro del breve período de dos años (1854-1856) en el que los progresistas arrebataron el poder a los moderados, las enseñanzas industriales fueron reformadas con el objetivo de modernizarlas y hacerlas más coherentes. Ello se debió a Francisco Luxan, ministro de Fomento, que vio como por los Reales Decretos de 20 y 27 de mayo de 1855 se aprobaban el Plan Orgánico de las Escuelas Industriales y el Reglamento para su desarrollo. La nueva legislación trajo entre otras consecuencias, la incorporación de Valencia al selecto grupo de ciudades sede de Escuela Industrial profesional, grupo en el que seguía figurando Bergara.

En octubre de 1856 los moderados regresaron al poder y no lo abandonaron hasta la caída de Isabel II en 1868. Un año después se promulgó la llamada “Ley Moyano” o Ley de Instrucción Pública de 9 de septiembre de 1857. Mediante ella el Gobierno consiguió materializar un proyecto en el que anteriores gabinetes ministeriales habían ya trabajado, y este no era otro que el de unificar en un solo texto legal la diversidad de leyes y planes que de manera fragmentaria, secto-



Telesforo Monzon Zurbano. *Europeana; Espainiako Liburutegi Nazionala.*
 Telesforo Monzón y Zurbano. *Europeana; Biblioteca Nacional de España.*

Garai hartako bi bergarar ospetsu, bata bergararra zen jaiotzez eta bestea, berriz, adopzioz, benetan garrantzitsuak izan ziren Mintegiaren bilakaerarako. Telesforo Monzon eta Mariano Jose Laskuraini buruz ari gara. Gipuzkoako Diputatu Nagusi, Erreinuko Gorteetako Diputatu eta Bergarako Alkate izan zen Monzon, Errege Seminarioko zuzendari izendatu zuten 1860. urteko azaroan. Zentroko irakasleek sarritan aitortu zuten bezala gorputz eta arima aritu zen bertan lanean eta ahalegin handiak egin zituen eraikinaren handitze-lanak aurrera eramateko. Denbora eta esfortzu handia eskaini zion helburu horri 1860 eta 1866. urteen artean eta, hala ere ezin izan zuen bere nahia gauzatu, Mintegiaren ondoan zeuden etxe eta orube batzuk desjabetzea ezinezkoa izan zelako. Dena den, aipatutako azken urtearen eta 1868. urtearen artean jatorrizko fatxada botatzen eta gaur egungoa berreraikitzen ikusi zuen. M. J. Laskurainek eraman zituen aurrera aipatutako lanak. Mutrikun jaio eta Bergarara bizitzera etorri zen Laskurain, sustrai neo-klasikoak izan zituen azken arkitekto handieneta-

rial y parcial venían regulando el mundo de la enseñanza. La ley citada se ocupó también de las Escuelas Industriales y corroboró la apertura de una nueva de ellas en Gijón, hecho que había acaecido en 1856.

Dificultades de índole económica y la constatación de que las enseñanzas industriales concitaran el interés de un número de alumnos muy inferior al en principio esperado, llevaron al paulatino cierre de estos centros. En 1860 dejaron de funcionar las escuelas industriales de Bergara y de Gijón y para 1867 quedaron suprimidas todas las demás, excepto la de Barcelona.

Telesforo Monzón y Mariano José de Lascurain

El cierre de la escuela industrial no motivó, en contra de lo que pudiera parecer, un periodo de crisis en la vida del Real Seminario; de hecho, el edificio fue remodelado y ampliado, y dotado de una nueva fachada (la actual) entre los años 1866 y 1868, con lo que la institución que albergaba, el Instituto Provincial de Gipuzkoa, pasó a tener unas dependencias más holgadas, capaces y modernas. Además, el Instituto renovó sus gabinetes, adquiriendo nuevos instrumental científico, e impulsó el observatorio meteorológico.

Fue en esta etapa cuando dos ilustres bergareses, uno de ellos de nacimiento y el otro de adopción, jugaron un papel fundamental en el devenir del Seminario. Nos referimos a Telesforo Monzón y a Mariano José de Lascurain. Monzón, que había ostentado los cargos de Diputado General de Gipuzkoa, de Diputado en las Cortes del reino y de Alcalde de Bergara, accedió al empleo de director del Real Seminario en noviembre de 1860. Su entrega en el puesto fue absoluta, tal y como reconocieron en más de una ocasión los profesores del centro, y su mayor empeño, realizar las obras de ampliación del edificio. Dedicó a ello mucho tiempo y esfuerzo entre 1860 y 1866 y,

koa izan zen. Zekitena ondo egiteaz gain, ordurako adinekoak ziren Monzon eta Laskurain, eskuzabalak izan ziren Mintegiarekiko erretiroa hartu zutenean: lehenengoak diru-kopuru garrantzitsua eman zion erakundeari eta bigarrenak ez zuen kobratu egindako lanaren ordainsaria. Horri esker “se han podido decorar elegantemente el salón y despacho del Director, la ante sala y la sala de visitas de los colegiales internos; construir nuevas estanterías para el Gabinete de Física y la Biblioteca; reformar la de Historia Natural; y pintar al fresco las paredes y la bóveda del antiguo salón de actos públicos” [ANSOATEGI, Domingo: Memoria acerca del estado del Instituto Provincial Guipuzcoano... y Seminario de Vergara; sep. 1868; 11. or].

Errege Mintegiaren Adiskideen Elkarte

1868. urtetik aurrera gertaera ugari bizi izan ziren denbora tarte laburrean eta eragin zuzena izan zuten Errege Seminarioaren bizitzan. 1868ko Iraileko Iraultzaren ondorioz Isabel II.a erbesteratua izan zen eta erregimen moderatua erori egin zen. Behin behineko Gobernuak, progresista eta demokraten laguntzarekin, irakaskuntza-askatasuna aldarrikatu zuen eta askatasun hori bera 1869ko Konstituzio berriaren 24. artikuluan zehazki jaso zen.

reinado de Luis Felipe de Orleans (1830-1848), nació en Paris, en 4, *rue Servandoni* la casa Breton, dedicada a la fabricación de instrumentos de física, química y matemáticas. El espíritu inquieto de los hermanos Louis y André les impulsó a innovar en el campo de la producción de este tipo de material científico. Lo hicieron con éxito, lo que supuso para la empresa Breton una carrera meteórica plagada de premios y reconocimientos. Para 1838 esta firma había producido ya un aparato electro-magnético ciertamente eficaz para usos terapéuticos, que constantemente perfeccionado, fue durante lustros muy utilizado en los hospitales de Francia y muy alabado por la clase médica gala. En 1841 la casa Breton amplía su sede con los locales de 9, *rue Petit-Bourbon-St-Sulpice* y recibe la medalla de bronce de la *Société d'Encouragement* por las mejoras aportadas en el campo de la técnica fotográfica. También en esta época comienza a experimentar con máquinas neumáticas, camino que le llevará a conseguir en 1852 la patente para un sistema de válvulas aplicable a este tipo de aparatos. En el año 1848 la sede empresarial pasa a 25, *rue Dauphine* (luego nº 23). Para entonces Breton ha sido galardonado en las Exposiciones Nacionales de 1839, 1842 y 1844 y lo será posteriormente en 1849; también en la Exposición Universal de Londres de 1851; en la Exposición Romana de 1854, y finalmente, en 1855, en la Exposición Universal de París. Colmado de honores -a comienzos de los sesenta se le distingue con la Legión de Honor-, Breton es un fabricante de fama internacional, que en 1867 abre tienda en la céntrica y elegante *Avenue Victoria* (nº8) y exporta buena parte de su producción a los países europeos. La empresa tiene su última sede en 52, *rue des écoles* (1880) donde será efímeramente regentada por el sucesor Gerboz para desaparecer en 1888.

Contamos, en la colección del Real Seminario de Bergara, con un grupo formado por 18 instrumentos científicos de la casa Breton. Uno de ellos, el aparato para la dilatación de los líquidos con cuatro tubos (AZT-



Melloniren bankua eta osagaiak (AZT-0064). 1999. urtean zaharberritua. Banco de Melloni y accesorios (AZT-0064). Restaurado en 1999.

Bergarako Errege Mintegiko bilduman Breton etxeko 18 instrumentu zientifiko ditugu. Instrumentu horietako bat, likidoen dilataziorako lau tutudun aparatua (AZT-0082), 1851-1867 urteen bitartean (bidaltze- edo saltze-data) datatu dugu. Melloniren bankua (AZT-0064) hirurogeiko hamarkadaren amaierakoa da. Beste zortzi instrumentu 1880koak edo beranduagoak dira zalantzarik gabe. Gainontzeko zortzi tresnei, nahiz eta zalantzarik gabe Breton etxekoak izan, ezin diegu bidaltze-data segururik jarri.

Eta XIX. mendearen amaieran, Ch. Noé, Constructeur d'Instruments de Précision

Ch. Noé etxea, instrumentu zientifikoak egiten zituen enpresa izanik, XIX. mendearen azken laurdeneko egoerara moldatzen jakin izan zuen enpresen arteko adibide ona dugu. Alemaniako lehiari arrakastaz aurre egiteko gai izan zen eta XX. mendera igarotzea lortu zuen, 1930. urtean itxi baitzen enpresa. Charles-François Noé-k sortu zuen enpresa 1862. urtean, Bigarren

0082) debemos fecharlo (data de expedición o venta) entre los años 1851 y 1867. A finales de la década de los sesenta debemos situar el banco de Melloni (AZT-0064). Otros ocho instrumentos son, sin lugar a dudas, de 1880 o años inmediatamente posteriores. Finalmente, a las últimas ocho máquinas restantes, de autoría segura Breton, no podemos hoy por hoy asignar una data de expedición concreta.

Y a finales del siglo XIX, Ch. Noé, Constructeur d'Instruments de Précision

La casa Ch. Noé es un buen ejemplo de empresa de fabricación de instrumental científico que supo adaptarse a las circunstancias del último cuarto del siglo XIX, hacer frente con éxito a la competencia alemana, y sobrepasar la centuria llegando a estar en activo hasta 1930. Fundada por Charles-François Noé en 1862, en la época central del boyante y pomposo Segundo Imperio, la empresa tuvo unos inicios modestos en su primera sede parisina de 6, rue Poules. En los años finales de la década

Inperio arrakastatsu eta ospetsuaren erdialdean. Pariseko *rue Poules* 6an kokatuta zegoen enpresak hasiera xumea izan zuen, baina 70eko hamarkadaren amaieran -dagoneko III. Errepublikaren garaian- enpresak aurrera egin zuen: instalazioak handitu zituen, tailerra *rue Amyot* 8an jarri eta denda, berriz *rue Laromiguière* 9an eta prezisioko instrumentuak egiten zituen etxe kontsolidatu moduan aurkeztu zen publikoaren aurrean. 1888tik aurrera *rue Berthollet* 8an jarri zuen denda enpresak eta hori izan zen behin betiko egoitza. Urte bat beranduago, Pariseko Erakusketa Unibertsalean urrezko domina jaso zuen eta orduan hasi zuen bere garairik ospetsuena; irakaskuntzarako eta esperimentaziorako material zientifikoa egiteaz gain, tresna zientifiko elektrikoak (elektrostatikoak eta magnetikoak) ekoizpenean eta X izpiak ekoizteko aparatuetan espezializatu zen. Errege Mintegiko bilduman Ch. Noé etxea *rue Berthollet* 8an zegoen garaiko hainbat pieza ditugu. Dokumentazioak ematen digun beste informazio batzuei esker badakigu ez direla 1919. urtea baino beranduagoak eta hori dela eta, 1888. urtearen eta XX. mendeko bigarren hamarkadaren artean datatu ditugu (bidaltze edo saltze data).

Pixii, neveu et successeur, XIX. mendearen hasierako etxerik famatu eta ospetsuenaren barometro bat Bergaran

Bildumako instrumentu zientifikoak artean egurrezko kutxatila luze bat ikus dezakegu. Irekitzerakoan beirazko tutu makur bat ikus dezakegu, giltza txiki bat duena eta bere aurrean luzera motzagoa duen termometro bat. Kutxatilaren mutur batean *Barometre selon M. Gay Lusac Par Pixii neveu et succ. r de Dumotiez, rue du Jardinot n.º. 2 à Paris* irakur dezakegu. Gaur egun badakigu barometro hau pieza benetan bitxia dela, alde batetik, XIX. mendearen hasierako tailer frantses garrantzitsuenetako batean egin zelako eta, bestetik, 1818-1835(c.) bitartekoa delako, hau da

de los 70 -dentro ya de la III República- la empresa prospera: crecen sus instalaciones, que se desdoblan en los talleres de la 8, *rue Amyot* y en la tienda de 9, *rue Laromiguière*, y se presenta en público como una firma ya consolidada en el campo de la construcción de instrumentos de precisión. Desde el año 1888 la empresa ubica la tienda en 8, *rue Berthollet*, que será su sede definitiva. Un año más tarde es galardonada con medalla de oro en la Exposición Universal de París, comenzando así su época gloriosa en la que, además de material científico para la enseñanza y la experimentación, se especializa en la producción de instrumentos científicos eléctricos (electrostáticos y electromagnéticos) así como aparatos para la producción de rayos X. En la colección del Real Seminario poseemos un interesante conjunto de piezas firmadas Ch. Noé, en su dirección de 8, *rue Berthollet*; gracias a otros indicios documentales sabemos que éstas no son posteriores a 1919, lo que hace que las datemos (data expedición o venta) entre 1888 y la segunda década del s. XX.

Pixii, neveu et successeur, la casa más prestigiosa y conocida de comienzos del s. XIX firma un barómetro para Bergara

Entre los instrumentos científicos de la colección encontramos un estuche alargado de madera. Al abrirlo descubrimos un tubo de vidrio encorvado y dotado de una pequeña llave; frente a él se dispone un termómetro de longitud más corta. En uno de los extremos del estuche leemos: *Barometre selon M. Gay Lusac Par Pixii neveu et succ.r de Dumotiez, rue du Jardinot n.º. 2 à Paris*. Sabemos hoy en día que este barómetro es una pieza ciertamente singular, en primer lugar por haber sido fabricada en uno de los talleres franceses más importantes de la primera mitad del s. XIX y porque dicho barómetro debe ser datado entre 1818 y 1835 (c.), es decir, antes de que en el Real Seminario se instalara el Instituto Provin-



Bateria elektrikoa (AZT-0018). 1998. urtean zaharberritua. Bateria eléctrica (AZT-0018). Restaurada en 1998.

Errege Mintegian Gipuzkoako Institutu Probintziala jarri baino lehenagokoa. 2004. urtean ekin genion etxe horri buruzko ikerketari, ordura arte zegoen bibliografia urria irakurritz eta enpresaren jatorrizko merkataritza-katalogo ugari eta lehen aipatu ditugun beste hainbat dokumentu aztertuz (Frantzian ospatu ziren erakusketa nazional eta internazionalak eta partaideei buruzko liburuak eta txostenak eta “Annuaire-Almanach du Commerce...(Didot-Bottin)” direlakoak). Horrela jakin ahal izan genuen 1780. urtera jo behar genuela Dumotiez anaiek tresna zientifikoak egiteko sortu zuten tailerraren berri izateko. Etxe hori izan zen, hain juxtu, XVIII. mendetik XIX.era igarotzerakoan Frantziako industria-sektore horrek bizi izan zuen berrikuntzaren protagonistetako bat. 1818. urtean Pixiik



Ontzi komunikatuak (AZT-0013). 1996. urtean zaharberritua.
Vasos comunicantes (AZT-0013). Pieza restaurada en 1996.

cial Guipuzcoano. Comenzamos en 2004 la investigación acerca de esta firma mediante la lectura de la hasta entonces escasa bibliografía y consultando por un lado, un buen número de catálogos comerciales originales de la propia empresa, por otro, los antes citados libros e informes referentes a los participantes en las diferentes exposiciones nacionales e internacionales celebradas en Francia, así como los “Annuaire-Almanach du Commerce...(Didot-Bottin)” a que ya hicimos referencia más arriba. Supimos así que teníamos que remontarnos hasta 1780 para ver a los hermanos Dumotiez crear un taller especializado en la construcción de instrumentos científicos. Esta firma fue una de las protagonistas de la renovación que este sector industrial francés vivió durante el tránsito del s. XVIII al XIX. En 1818 Pixii sucedió a Dumotiez en su misma sede de la *rue Jardinnet*, sede que cambiaría más tarde por la de la *rue Grenelle Saint Germain*. La calidad de la producción de Pixii fue unánimemente reconocida: fabricó instrumentos para los científicos más renombrados de Francia (Ampère, Pouillet, ...), conquistó el mercado americano e Hyppolite Pixii -que trabajaba con su padre en la empresa- ideó y construyó la primera máquina magneto-eléctrica realmente eficaz (1832). En el año 1855 Pixii abandonó la actividad y le sucedió en el negocio, por espacio aproximado de una decena de años, Fabre et Kunemann. Es gracias a esta labor de investigación por la que hemos podido datar nuestra pieza en el lapso temporal arriba indicado.

La reconstrucción por nosotros realizada fue confirmada en el año 2006 cuando Paolo Brenni, eminente historiador de la ciencia y Presidente de la *Scientific Instrument Society*, publicó en el boletín de la citada entidad científica un magnífico artículo monográfico dedicado a esta casa. Desde entonces, y a diferencia de lo que ocurre con las otras tres marcas que en esta guía presentamos, la trayectoria histórica de los talleres Dumotiez y Pixii es de sobra conocida. El



Lenteak (AZT-0036),
(AZT-0037), (AZT-0038).
1997. urtean zaharberituak.
Lentes (AZT-0036),
(AZT-0037), (AZT-0038).
Piezas restauradas en 1997.

Nobili galvanometroa (AZT-0090).
2000. urtean zaharberritua.
Galvanómetro de Nobili (AZT-0090).
Pieza restaurada en 2000.



jarraitu zuen Dumotiez-en lana rue Jardinet-eko egoitza berean, eta beranduago aldatu zuen egoitza rue Grenelle Saint Germain-era. Pixii-ren ekoizpenaren kalitatea aho batez onartu zen: Frantziako zientzialaririk ezagunenentzat (Ampere, Pouillet...) egin zituen instrumentuak, Amerikar merkatua irabazi zuen eta Hyppolite Pixii-k (bere aitarekin lan egiten zuen enpresan) benetan eraginkorra izan zen lehenengo makina magneto-elektroa asmatu eta eraiki zuen (1832). 1855. urtean Pixii-k negozioa utzi zuen eta Fabre et Kunemann-ek ordeztu zuen hamar bat urtez. Egindako ikerketa horiei esker datatu ahal izan dugu gure pieza goian zehaztutako denbora-tartean.

Gertaerak guk berregindako moduan izan zirela baieztatu ahal izan genuen 2006. urtean Paolo Brenni-k, zientziari buruzko goi-mailako historialari eta *Scientific Instrument Society*-ko presidentea, erakunde horretako aldizkarian argitaratu zuenean etxe horri buruzko artikulua monografiko bikaina. Orduanik, eta gida honetan aurkeztzen ditugun beste hiru etxeekin gertatzen ez den bezala, ezaguna da Dumotiez eta Pixii tailerren ibilbide historikoa. Brenni irakasleak berretsi zuen gure barometroaren eta Errege Mintegiko bildumaren garrantzia honako hau esatean: “In fact, one can hardly find an important cabinet of physics of the period 1820-1850 which does not include instruments signed by Pixii. From Lisbon to Florence, from Prague to Sørø his name was synonymous with excellent philosophical apparatus.” [Brenni, P. “Dumotiez and Pixii: the transformation of french philosophical Instruments”; in *Bulletin of the Scientific Instruments Society* (89. zk.; 2006); 12. or.]

METEOROLOGIAREN HASTAPENAK GIPUZKOAN

Meteorologia atmosfera bera eta atmosferako fenomenoak aztertzeaz arduratzen den zientzia da. Mete-

profesor Brenni korroboratzen tanto la relevancia de nuestro barómetro como la importancia de la colección del Real Seminario que lo acoge cuando afirma: “In fact, one can hardly find an important cabinet of physics of the period 1820-1850 which does not include instruments signed by Pixii. From Lisbon to Florence, from Prague to Sørø his name was synonymous with excellent philosophical apparatus.” [Brenni, P. Dumotiez and Pixii: the transformation of french philosophical Instruments; en *Bulletin of the Scientific Instruments Society* (nº 89; 2006); p. 12.]

NACE LA METEOROLOGÍA EN GIPUZKOA

La meteorología es la ciencia que se ocupa del estudio de la atmósfera y de sus fenómenos. Suele considerarse que la meteorología moderna empieza a ser una realidad a partir del siglo XVII, momento en el que, además de darse inicio a la construcción de una serie de instrumentos fundamentales para esta rama científica (barómetros, termómetros, etc.), se abre el camino a la investigación y posterior comprensión de los movimientos y demás características de la atmósfera. Es en esta época cuando comienzan a realizarse las observaciones meteorológicas, actividad de la que son reflejo, por ejemplo, la construcción en Toscana del primer observatorio Europeo, en 1653, o la realización de registros meteorológicos por parte de la *Royal Society* de Londres en el siglo XVIII.

Toda esta labor, aun siendo de gran interés científico, no tenía aplicación práctica. A mediados del siglo XIX, con el nacimiento de la meteorología sinóptica, que se ocupa de la observación, análisis y predicción de los fenómenos atmosféricos, se consiguió pronosticar el tiempo. Para ello era necesaria la recopilación de datos meteorológicos que permitieran conocer y estudiar la situación atmosférica de diferentes lugares pertenecientes a un área determinada

orologia modernoa XVII. mendetik aurrerantzean sortzen hasten dela esan dezakegu, alde batetik, meteorologian funtsezkoak diren instrumentuak (barometroa, termometroa etab.) asmatzen hasten direnean eta bestetik, atmosferaren higidurak eta beste hainbat ezaugarri ikertzen eta ulertzen hasten direnean. Garai honetan hasten dira behaketa meteorologikoak egiten eta horien lekuko dira adibidez, 1653. urtean Toskanan eraiki zuten meteorologia behatokia, Europan lehenengoa, edota XVIII. mendean Londongo *Royal Society* erakundeak egindako datu meteorologikoen erregistroak.

Lan meteorologiko hauek interes zientifiko handia bazuten ere, ez zuten aplikazio praktikorik. Eguraldia iragartzea XIX. mendearen erdialdean lortu zen, atmosferan gertatzen diren fenomenoak behatzeaz, analizatzeaz eta iragartzeaz arduratzen den meteorologia sinoptikoa jaio zenean. Eguraldia iragarri ahal izateko leku desberdinetako eta momentu jakin bateko egoera meteorologikoa ezagutzea eta beraz, datu meteorologiakoak biltzea eta aztertzea beharrezkoa zela ikusi zuten. Horretarako behatokiak eraiki behar ziren eta beraien arteko komunikazio azkarrak lortu behatoki meteorologien sareak sortzeko. Telegrafoari esker, Joseph Henryk antolatu zuen lehenengo sarea, 1848an, Ameriketako Estatu Batuetan. Europako sareak hurrengo hamarkadakoak dira: Robert Filtzroy jaunak Ingalaterrakoa ipini zuen martxan eta Urbain Le Verrierrek Frantziakoa 1854 urtean. Meteorologia gero eta garrantzi handiagoa hartzen zihoan zientzia zen, eta horren lekukoa da 1853an Bruselan egin zuten Lehen Nazioarteko Meteorologia Konferentzia.

Garai horretan bertan Bergarari esker Gipuzkoak bat egin zuen Europarekin meteorologia gaietan. Gure probintzian lehenengo meteorologia behatokia Bergarako Errege Seminariokoa izan zen. Argi gelditzen da 1860. urteko Seminarioko inbentarioan, non ira-

en un mismo momento. Ello obligaba a la construcción de un buen número de observatorios meteorológicos y a establecer entre ellos un sistema de rápida comunicación, para organizarlos así en red. Valiéndose del telégrafo, Joseph Henryk estructuró la primera de estas redes en 1848 en Estados Unidos. En Europa las redes meteorológicas datan de la década sucesiva: Robert Filtzroy creó la red inglesa y Urbain Le Verrier, en 1854, la de Francia. También en esta época, concretamente en el año 1853, se celebró en Bruselas la Primera Conferencia Internacional de Meteorología, prueba de que ésta era una ciencia cada vez más importante y prestigiosa.

También en Gipuzkoa afloró la preocupación por este campo científico y gracias a Bergara el territorio pudo situarse a nivel europeo en esta materia. Efectivamente, fue en el Real Seminario donde se estableció el primer observatorio meteorológico gipuzkoano. Así consta en un inventario de instrumentos científicos de nuestra institución datado en el año 1860 y en el que leemos: “En el año 1854 se creó el Observatorio Meteorológico” [AMB; Real Seminario de Bergara; C/079-03]. El de Bergara estaba destinado a conformar, junto con otros catorce repartidos por todo el reino y el Observatorio central de Madrid, la primera red meteorológica de España. El impulsor de tal iniciativa fue Antonio Gil de Zaráte, el que fuera durante años Director de Instrucción Pública. Según este proyecto, el observatorio bergarés participaría de un plan meteorológico más ambicioso, ya que estaba prevista, siguiendo una propuesta realizada por Inglaterra, la integración de la red estatal en una más amplia europea. El programa, sin embargo, no llegó a buen puerto ya que debido a razones de índole política y económica la red meteorológica sólo pudo materializarse en una pequeña proporción. De lo que, empero no cabe ninguna duda es de la edificación del observatorio de Bergara, que se inició en el año 1854 y que una vez finalizado fue debidamente



Errege Seminarioan 1867an egindako behaketa meteorologikoen argitalpena.

Publicación de las observaciones meteorológicas del Real Seminario en 1867.

REAL SEMINARIO DE VERGARA.		CURSO DE 1865 A 1866	
<i>Relacion del aumento que ha tenido el material.</i>			
SE HAN ADQUIRIDO PARA EL OBSERVATORIO METEOROLOGICO LOS APARATOS SIGUIENTES.			
APARATOS.			
1	Termómetro grado y registrado.		Real 1000
2000	Hoja de papel preparada para el mismo al 100 a 75 reales.		750
1	Platino para registrar.		700
1	Pila de 8 elementos para ambos aparatos.		97 30
10	Botas de caño ancho a 3,50 reales.		35
1	Reloj para los cambios.		50
1	Platino para registrar.		200
200	Hoja de papel preparada al 100 a 97,50		195
1	Termómetro de un metro de largo para la temperatura de la tierra con su caja.		17
1	Termómetro de 2 metros con su caja.		85
1	Termómetro.		97 30
2	Termómetros de báscula divididos en un quinto de grado.		130
1	Termómetro mismo dividido en un quinto de grado.		150 30
1	Termómetro de tipo con plomo.		130 30
1	Barómetro Fortin.		210
1	Escala Fahrenheit.		21
1	Escala Celsius.		21
1	Frasco de agua de prueba de hierba para los ojos de los aparatos.		4
2	Botas de caño de paja.		30
	Por conexión, embalaje, etc.		401
Total de reales.			322.180 mil.

Bergarako Errege Seminarioko behatoki meteorologikorako 1865-1866 ikasturtean erosi ziren instrumentuen zerrenda.

Relación de instrumentos adquiridos en el curso 1865-1866 para el observatorio meteorológico del Real Seminario de Bergara.

kurtzen dugun: “En el año 1854 se creó el Observatorio Meteorológico² [BUA; Bergarako Errege Seminarioa; C/079-03]. Bergarakoa Erresuman eraiki beharko liratekeen beste hamalau behatokiekin eta Madrilgo nagusiarekin, Espainiako lehenengo sare proiektuaren partaideak zen. Antonio Gil de Zárate jauna, urteetan Instrukzio Publikoko zuzendaria izan zena, zegoen asmo horren atzean. Gainera, proiektu hau gauzatzekotan Bergarako behatokia, besteekin batera, Ingalaterrak proposatutako Europa mailako sare zabalago baten baitan kokatuko litzateke. Dena den, arrazoi ekonomikoak eta arazo politikoak tarteko, aipatutako sare meteorologikoa neurri txiki batean baino ez zen gauzatu Espainian. Baina dudarik ez dago Bergarako behatokia egin, egin zela. Esandako 1854an hasi zen eraikitzen eta urte bete beranduago, amaitu eta meteorologia instrumentuz hornitu zuten. 1855eko ekainean Errege Seminarioak 8.412 erreal ordaindu zituen: “por la construcción del observatorio; según la cuenta documentada formada por esta administracion...” [BUA; José M^a Usandizaga Batxillergoko Institutua; C/0012].

equipado con instrumental meteorológico. En junio de 1855 el Real Seminario abonaba 8.412 reales: “por la construcción del observatorio; según la cuenta documentada formada por esta administración...” [AMB; Instituto de Bachillerato José M^a Usandizaga; C/0012].

Tras el primer fracaso, el Gobierno acometió, mediante Real Orden de 5 de marzo de 1860, un nuevo plan para la construcción de la red de observatorios. Esta fecha suele considerarse como la del nacimiento de la meteorología en España. En esta ocasión el observatorio de Bergara no se encontraba entre los relacionados en el proyecto, lo cual no quiere decir que tal equipamiento científico hubiera desaparecido. Existen menciones documentales de los años 1859, 1861 y 1864 que certifican la existencia y funcionamiento del observatorio meteorológico del Seminario, aunque bien es verdad éste no vivía su momento de máximo esplendor.

La situación cambió en 1865. Mediante Real Decreto de 15 de julio, el Gobierno impulsó la red de me-



Franklinen botila (AZT-0034).
1997. urtean zaharberritua.
Botella de Franklin (AZT-0034).
Pieza restaurada en 1997.

Lehenengoaren porrotaren ondoren, Gobernuak berriro ere ekin zion behatoki meteorologikoen sarea eratzeke proiektuari; 1860. urteko martxoaren 5eko Errege Agindua bitartez ofizialki planteatu zen asmoa. Horregatik gaur egun hau, Espainiako meteorologiaren sorrera data kontsideratzen da. Orduan zerrendatu ziren behatokien artean Bergarakoa ez zegoen. Nahiz eta Bergarako behatoki meteorologikoa indarrean zegoela frogatzen duten 1859, 1861 eta 1864 urteetako aipamen dokumentalak dauden, egia da ez zegoela bere onenean.

Egoera 1865. urtean aldatu zen. Uztailaren 15eko Errege Dekretuarekin, Gobernuak meteorologia sareari bultzada eman zion, funtzionamendua hobetu zuen eta behatokietan lortutako datuak erregularatasunez Madrilera bidaltzea lortu zuen, horrela sistema guztiaren kudeaketa hobetuz. Orduan Bergarak bere lan meteorologikoa indarberitu zuen: diru kopurua handia gastatu zuen Errege Seminarioak behatokiaren ekipamendua aberasteko; Paulino Caballero, bertako fisika irakaslea izendatu zuten horren arduradun eta datuak Madrilera bidaltzeari eta horiek argitaratzeari ekin zioten.

Bergarako behatoki meteorologikoaren lana 1873an amaitu zen, gerra zela eta Gipuzkoako Institutua Donostiara eraman zutenean. Bertan Paulino Caballero katedratikoak meteorologia saileko lanen buru izaten jarraitu zuen 1890eko hamarkadara arte, ardura hori José Peña Borreguerok bere gain hartu zuen arte.

Euskal kostaldeko ekaitzak iragartzeko helburuarekin Igeldo mendian behatoki meteorologiko berri bat eraikitzeke proposamena egin zuen Juan Migel Orkolagak 1901.ean. Ideia hori aztertzeke Diputazioak batzorde bat osatu zuen eta besteen artean, horren partaide Peña Borreguerok izendatu zuten. Azkenean, 1905. urtean hasi zen lanean Igeldoko behatokia.

teorología, mejoró su funcionamiento y consiguió que se remitieran a Madrid con regularidad los datos obtenidos en los diversos centros, mejorando así la gestión del sistema en su totalidad. Fue entonces cuando Bergara revitalizó su labor meteorológica: el Real Seminario gastó una cantidad importante de dinero para enriquecer el equipamiento de su observatorio; Paulino Caballero, profesor de física del centro, fue nombrado responsable del mismo, y se comenzaron a remitir los datos a Madrid así como a publicarlos.

La labor del observatorio meteorológico de Bergara finalizó en 1873, cuando el Instituto de Gipuzkoa fue trasladado a San Sebastián a causa de la guerra. El catedrático Paulino Caballero continuó allí dirigiendo los trabajos relativos al campo de la meteorología hasta la década de 1890, fecha en la que asumió tal responsabilidad Don José Peña Borreguero.

En 1901, Don Juan Miguel Orkolaga propuso la construcción de un nuevo observatorio meteorológico en el monte Igeldo, con el objetivo de dedicarse fundamentalmente a la predicción de las inclemencias del tiempo en la costa vasca. La Diputación constituyó una comisión encargada de dictaminar sobre el particular, comisión de la que formó parte el ya citado Peña Borreguero. Finalmente, el observatorio de Igeldo dio inicio a sus trabajos en el año 1905.

CERA, YESO Y PASTA DE PAPEL: LOS MODELOS DE ANATOMÍA HUMANA DEL REAL SEMINARIO

La anatomía es la ciencia que estudia las estructuras de los organismos; es una ciencia morfológica, que describe e interpreta formas. Aunque surgida en la antigua Grecia, esta ciencia se viene desarrollando sistemáticamente desde el s. XVI, sobre todo a partir de los trabajos del médico A. Vesale. A comienzos del

ARGIZARIA, IGELTSUA ETA PAPER-OREA: ERREGE MINTEGIKO GIZA ANATOMIAREN MODELOAK

Anatomia organismoen egiturak ikertzen dituen zientzia da; zientzia morfologikoa da, formak deskribatu eta interpretatzen dituena. Antzinako Grezian sortu bazen ere, XVI. mendetik aurrera garatu da sistematikoki, batez ere A. Vesale medikuak egindako lanetatik aurrera. XIX. mendearen hasieran giza gorputzaren anatomia zehaztasun handiz ezagutzen zen. Mendean zehar, aurreko mendeetan lortutako ezagutzari garapen berriak gehitu zi-tzaizkion: alde batetik, izugarri garatu zen anatomia konparatua eta, bestetik, oinarritzko bi teoria formulatu ziren, teoria zelularra eta espezieen eboluzioari buruzko teoria. Hori zela eta, anatomiak azalpenak emateko gaitasun berria lortu zuen.

Bestalde, paradigma anatomoklinikoari esker anatomiari buruzko ezagutza medikuntzaren oinarritzat finkatu zen. Medikuntzaren programa anatomokliniko berriak -Bichat medikuak formulatu zuen berorren funtsa 1801ean- zioen medikuntzak prezisio zientifikoa izango zuela lesio anatomikoa medikuntzaren oinarri bihurtzen zenean eta sintomak lesioaren ondorio gisa ulertzea iristen zenean.

Laburbilduz esan dezakegu, anatomia ezinbesteko zientzia zela XIX. mendean eta anatomiako modeloak tresna baliotsuak zirela anatomia behar den bezala irakasteko, bai goi-mailako hezkuntzan eta baita bigarren hezkuntzan ere.

Giza anatomiari buruzko modeloak dokumentatuta daude Bergarako kabineteetan, dagoeneko 1793. urtean, “Real Seminario Patriótico Bascongado” erakundearen bildumen artean. 1793. urteko eta 1797 urteko inbentario konparatuak aztertzen baditugu ikus dezakegu Bergarako fondoan artean esaterako ume baten eskeletoa eta begiaren egitura artifiziala daudela [BUA; Bergarako Errege Seminarioa; C/123-08].

s. XIX, la descripción morfológica del cuerpo humano había alcanzado un gran nivel de detalle. Al conocimiento adquirido en siglos anteriores se unieron entonces un gran desarrollo de la anatomía comparada y la formulación de dos teorías fundamentales: la teoría celular y la de la evolución de las especies. Consecuentemente, la anatomía adquirió un poder explicativo nuevo.

Por otra parte, el llamado paradigma anatomoclínico haría que el conocimiento anatómico se consolidara como uno de los pilares fundamentales de la medicina. El nuevo programa médico anatomoclínico, cuya esencia formuló el médico francés Bichat en 1801, sostenía que la medicina alcanzaría precisión científica cuando convirtiera la lesión anatómica en la base de la medicina, y por lo tanto se entendieran los síntomas como la consecuencia de dicha lesión.

En suma, la anatomía es en el s. XIX una ciencia imprescindible y los modelos anatómicos una herramienta valiosa para su correcta enseñanza, tanto en los niveles superiores como en la enseñanza secundaria.

La presencia de modelos de anatomía humana en los gabinetes de Bergara está documentada ya en 1793, entre las colecciones del Real Seminario Patriótico Bascongado. Si tomamos los inventarios comparados de 1793 y 1797 veremos que en los fondos bergareses se encontraban, por ejemplo, “un esqueleto de un niño” y “una estructura de ojo artificial” [AMB; Real Seminario de Bergara; C/123-08].

Igualmente había modelos a mediados del XIX, en las colecciones del Instituto Superior Guipuzcoano de Segunda Enseñanza que, como sabemos, radicaba en nuestra localidad. Así nos lo certifica la Memoria referente al curso académico 1860-1861, que en su apéndice aporta un cuadro en el que queda patente la existencia en el Seminario de una sección de “Anato-

Giza eskuin begiaren modeloa (GA-01).

XIX. mende amaierakoa.

1993. urtean zaharberritua.

Modelo de ojo derecho humano (GA-01).

Finales del s. XIX.

Restaurado en 1993.





Deyrolle etxeko anatomia modeloak lantzeko tailerra. Argazkian, prestatze prozesuan dauden bi modelo ikus daitezke, GA-06 alearen berdinak.

Vista de los talleres de moldeado de la casa Deyrolle. En la imagen pueden apreciarse dos modelos similares a la pieza GA-06, en proceso de fabricación.

XIX. mendearen erdialdean, gure herrian zegoen Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzako Goi mailako Institutuak ere bazituen giza anatomiaren modeloak. Horrela azaltzen da 1860-1861 ikasturte akademikoko memorian, eranskinetako koadro batean zehazten baita Errege Mintegian Giza Anatomia saila dagoela eta bertan daudela igeltsuzko modeloak eta argizariz egindako prestakinak: “sistema nervioso cerebro-espinal en relación con la columna vertebral, tamaño natural; preparación del corazón y origen de los grandes vasos, tamaño natural; idem del ojo, gran tamaño, con separación de las partes principales” [MONZÓN, T. (1861) Memoria acerca del estado del Instituto Provincial Guipuzcoano....en el acto solemne de la apertura del curso 1861 a 1862, Vergara, Imprenta de Manuel Imaz].

Gaur egunera arte mantendu diren modeloak beranduagokoak dira, XIX. mendearen bukaerakoak, hain zuzen ere. Anatomiari buruzko hainbat modelo artifizial eta anatomiazko prestakin natural bat daude, giza gorputzaren hainbat sistema eta organo irudikatzen dituztenak.



Giza muskulatura eta erraien modelo orokorra (GA-06). 1993. urtean zaharberritua.

Modelo general de anatomia humana (GA-06). Restaurado en 1993.

mía Humana” con modelos de yeso y también “Preparaciones de cera: sistema nervioso cerebro-espinal en relación con la columna vertebral, tamaño natural; preparación del corazón y origen de los grandes vasos, tamaño natural; idem del ojo, gran tamaño, con separación de las partes principales” [MONZÓN, T. (1861) Memoria acerca del estado del Instituto Provincial Guipuzcoano....en el acto solemne de la apertura del curso 1861 a 1862 Vergara, Imprenta de Manuel Imaz].

Errege Mintegiko bildumako modelo horiek, modeloen kalitate zientifikoagatik eta materialagatik ospetsuak eta garrantzitsuak ziren Pariseko hiru etxetan ekoiztu eta erosi ziren: Auzoux, Tramond eta Deyrolle.

L.T.J. Auzoux medikuak XIX. mendeko modelo anatomikoen enpresa garrantzitsuena sortu zuen. Auzoux etxeak arrakasta izan zuen modeloen originaltasun eta berrikuntzagatik: tamaina handikoak (eskalan egindakoak), desmuntagarriak -horri esker modelo bakar batean zehaztasun anatomiko ugari jaso zitezkeen-, berak asmatutako paper-ore berezian eginak (gogorra, iraunkorra, manipulagarria...).

Tramond etxeak XIX. mendearen azken herenean eta XX. mendeko lehen urteetan jardun zuen lanean. Frantziako Iraultzaren ostean argizarizko modelo anatomikoak prestatzen hasi zen etxe bati eman zion jarraipena aipatutako tailerrak. Tramond-ek, -argizarizko modelo anatomikoak prestatzen zituen azkeneko maisuetako bat izan zen- merezitako arrakasta lortu zuen egiten zituen osteologiako prestakinengatik: muntatutako eskeletoak, garezuraren prestakinak, bizkar-hezuraren prestakinak, goiko eta beheko gorputz-adarretako hezuraren prestakinak, etab.

Horrez gain, hamarkada askotan zehar Historia Naturalaren aleak eta materialak saldu zituen Deyrolle etxea ere, modelo anatomikoak ekoizten hasi zen XIX. mendearen bigarren erdialdean. Mende erdi baino gehiago aritu zen lan horretan, eta aurrez aipatutako etxeek bezala, honek ere sari ugari jaso zituen nazioarteko erakusketetan.

BILDUMA GEOLOGIKOAK

Beti egon izan dira bilduma geologikoak Bergarako Errege Mintegian, batez ere ilustrazio garaian “Real Seminario Patriótico Bascongado” erakundeak mine-

Los modelos que se han conservado hasta hoy son ejemplares más tardíos, de finales del XIX. Se trata de varios modelos artificiales de anatomía y una preparación de anatomía natural que, en conjunto, representan diversos sistemas y órganos del cuerpo humano.

Estos modelos de la colección del Real Seminario fueron producidos y adquiridos en tres de las casas parisinas más renombradas e importantes por la calidad científica y material de sus modelos: Auzoux, Tramond y Deyrolle.

El médico L.T.J. Auzoux creó la empresa de modelos anatómicos más importante del s. XIX. El éxito de la casa Auzoux se asentó en la originalidad y novedad de sus modelos: gran tamaño (fabricados a escala), desmontables -lo que le permitía reproducir en un solo modelo numerosos detalles anatómicos-, realizados en una pasta de papel especial inventada por él -resistente, duradera y manipulable-, etc.

La casa Tramond ejerce su actividad durante el último tercio del s. XIX y primeros años del XX, aunque este taller es el continuador de una saga de preparadores de modelos anatómicos en cera o ceroplastia, iniciada justo tras la Revolución Francesa. Tramond, que fue uno de los últimos maestros de la ceroplastia anatómica, logró justa fama gracias a sus preparaciones osteológicas: esqueletos montados, preparaciones craneales, de la columna vertebral, de los huesos de los miembros superiores e inferiores etc.

Por su parte, tras décadas dedicada al comercio de ejemplares y materiales de Historia Natural, durante la segunda mitad del s. XIX la casa Deyrolle comienza también a ocuparse de la fabricación de modelos anatómicos, actividad que mantendrá durante más de medio siglo y con la que cosechará, al igual que las anteriores casas, numerosos premios en exposiciones internacionales.

ralogiari buruz egindako lanetatik aurrera, baina baita hurrengo mende osoan zehar ere. Gogoan izan behar dugu Mintegiak izan zuela kabinete mineralogiko aberatsa, mineralogia eta metalurgia arloan egindako ikerketa aitzindari haietarako. Ramon M^a de Munibe eta Fausto Elhuyarrek hartu zuten parte, beste batzuen artean, kabinete hori antola-tzen eta aberasten. Bilduma mineralogikoak XIX. mende osoan zehar iraun zuen eta gainera material berriekin aberastu zen, esaterako, goi-mailako ingeniari, geologo eta Espainiako Mapa Geologikoaren Batzordeko presidente izan zen Felipe Bauza jaunak, lehenago mintegi-kide izandakoak, bere jabetzako mineral ugari eman zionean Institutuari (1872).

Inbentariatutako material geologikoan 369 fosil eta 1181 mineral daude. Pieza kopuru nahiko ugaria dagoen arren eta erakundearen historia akademikoan pieza horien garrantzia dokumentatuta dagoen arren, egin berri dugun ikerketa historiko-zientifikoarekin ezin izan ditugu datazioak egin eta antzinako material-taldeak ere ezin izan ditugu behar den bezala identifikatu.

HERBARIOAK ETA LORATEGIAK BOTANIKA PRAKTIKATZEKO

Naturaren -animalien, landareen eta mineralen erreinuen- behaketekin eta ikerketekin zerikusia zuten jarduerak diziplina zientifikoaren estatusa hartzen hasi ziren XVIII. mendean zehar. Botanika gero eta pertsona gehiagori interesatzen zitzaion. Carolus Linnaeus suediarra (1707-1778) landareak sailkatzeko eta izendatzeko ezarri zuen sistema onartzen hasi ziren Europako hiriburuetan sortu ziren lorategi botanikoetan lan egiten zuten eta mende horretan egin ziren espedizio zientifiko ugartan parte hartu zuten zientzialariek. Uppsala-ko lorategi botanikoa 1741. urtetik aurrera berreraiki eta hedatu zen eta Madrilekoa, berriz, 1755ean

COLECCIONES GEOLÓGICAS

Las colecciones geológicas también han estado siempre presentes en el Real Seminario de Bergara, sobre todo a partir de los trabajos mineralógicos del Real Seminario Patriótico Bascongado en la época de la Ilustración, pero también durante todo el siglo posterior. Recordemos que para las necesidades de los pioneros estudios de mineralogía y metalurgia, iniciados en 1777, contaba el Seminario con un rico gabinete mineralógico en cuya organización y enriquecimiento intervinieron entre otros Ramón M^a de Munibe y Fausto Elhuyar. La colección mineralógica perduró durante todo el s. XIX, siendo enriquecida con la entrada de nuevos materiales, como ocurrió en el año 1872 cuando el antiguo seminarista, eminente ingeniero y geólogo y Presidente de la Comisión del Mapa Geológico de España, Sr. D. Felipe Bauzá donó al Instituto una rica serie de minerales de su propiedad.

El material geológico inventariado asciende a 369 fósiles y 1181 minerales. A pesar de la relativa abundancia de piezas y de la documentada importancia de estos materiales a lo largo de la historia académica de la institución, la reciente investigación histórico-científica de las mismas no ha permitido aún establecer dataciones ni identificar con seguridad antiguos grupos materiales.

HERBARIOS Y JARDINES PARA LA PRÁCTICA DE LA BOTÁNICA

Las actividades relacionadas con la observación y la indagación de la naturaleza, de los reinos animal, vegetal y mineral, van tomando estatus de disciplinas científicas a lo largo del s. XVIII. La Botánica interesa cada vez a más personas. El sistema de clasificación y nomenclatura de las plantas que establece el sueco Carlos Linneo (1707-1778) es progresivamente aceptado por los científicos, que trabajan en los jardines

sortu zen. Herbarioak egitea ohiko jarduera bihurtu zen unibertsitate eta elkarte zientifikoetan, ezinbesteko tresna baitziren landareak iker-tzeko. Hain ugariak izan ziren espedizioen artean Ameriketako hainbat tokitara egindakoak aipatuko ditugu: José Celestino Mutis-ek Nueva Granada-ra egindakoa eta Martín de Sessé-k Nueva España-ra zuzendutakoa; biak XVIII. mendeko 80ko hamarkadan egin ziren.

“Colección de la Flora Bascongada” izena zuen “Sociedad Bascongada” erakundeak 1770eko erdialdeko hamarkadatik aurrera eratu zuen herbarioa, Madrileko Errege Lorategi Botanikoko zuzendari eta lehenengo katedradun izan zen Casimiro Gómez Ortegaekin lankidetzan eratu zuena. Eta Madrilek, Paris-eko Uppsalak bezala, Bergarak ere lorategi botanikoa izan zuen. Gogo handia jarri zuten behin baino gehiagotan proposatutako proiektu hori aurrera eramateko. Hasiera batean Viena-ko eta dagoeneko aipatu dugun Uppsala-ko lorategietan oinarritu behar zen. Dokumentazioan jasotakoaren arabera, badakigu 1787. urtean lorategi botaniko bat zegoela Errege Mintegiaren lursailetan. Ondo ordenatutako eta antolatutako lorategi haren zainketaz horretarako izendatutako pertsona bat arduratzen zen eta lorategiaren helburua honako hau zen hitzez hitz “que algunos jóvenes se instruyan en esta parte científica y de surtir la botica.” [BUA; Bergarako Errege Seminarioa; C/042-03].

Natur zientzien irakaskuntzak eta ikerketak garrantzia hartu zuten berriz ere 1840ko hamarkadatik aurrera eta bigarren hezkuntzako institutuei helburu hori betetzeko beharrezko zuten azpiegiturak eskuratzeko eskatu zitzairen. Bergarako Errege Mintegiak Lorategi Botaniko berri bat izan zuen XIX. mendean, garran-tzitsua eta gainera garai hartan Gipuzkoan zegoen bakarra, Gipuzkoako Institutu Probintzialak nahiko azkar antolatu baitzuen lorategia Bergarako ikastetxean.

botánicos que se crean en las capitales europeas y que participan en las abundantes expediciones científicas de esta centuria. El jardín botánico de Uppsala es reconstruido y ampliado a partir de 1741, y el de Madrid se funda en 1755. La elaboración de herbarios, herramienta fundamental para el estudio de las plantas, se convierte en práctica habitual de universidades y sociedades científicas. Entre las numerosas expediciones botánicas podemos recordar las realizadas a diferentes zonas de América por José Celestino Mutis (a Nueva Granada) y la dirigida por Martín de Sessé (a Nueva España), ambas en la década de los 80 del XVIII.

“Colección de la Flora Bascongada” fue el nombre del herbario que la Sociedad Bascongada conformó a partir de mediados de la década de 1770, en colaboración con Casimiro Gómez Ortega, Director y Primer Catedrático del Real Jardín Botánico de Madrid. Y al igual que Madrid, París o Uppsala, Bergara contó con su propio jardín botánico. Fue un proyecto perseguido con ahínco, propuesto en más de una ocasión e inspirado inicialmente en el de Viena y en el ya mencionado de Uppsala. La documentación certifica que en el año 1787 existía en los terrenos del Real Seminario un jardín botánico bien organizado y ordenado, que tenía asignado un responsable para su cuidado, y que su finalidad era, literalmente, “que algunos jóvenes se instruyan en esta parte científica y de surtir la botica.” [AMB; Real Seminario de Bergara; C/042-03].


La enseñanza, y el estudio de las ciencias naturales vivieron un nuevo auge a partir de la década de 1840 y a los institutos de segunda enseñanza se les encomendó dotarse de las infraestructuras necesarias para dicho fin. El Real Seminario de Bergara contó en el s. XIX con un nuevo Jardín Botánico, importante y ciertamente el único de Gipuzkoa en su época, ya que el Instituto Provincial Guipuzcoano logró organizarlo en fecha relativamente temprana en el centro bergarés.

1845eko Ikasketa Plan Orokorraren (Pidal plana) arabera antolatu zen bigarren hezkuntza eta urte horretan bertan Bergarako Mintegia Gipuzkoako Goi mailako Institutu izatera pasatu zen. Zentroa eta irakasleak azkar aritu ziren eta 1849rako Mintegiak herbario on bat zuen. Hiru urte beranduago aipatutako herbarioa aberastu egin zen, alde batetik espezie exotikoak jasotzen zituen atala osatu zen eta bestetik berriz, bertako espezieak zituen. Ordurako gauzatuta zegoen baita Lorategi Botanikoa; Historia Naturalean katedraduna zen Fernando Mieg arduratzen zen Lorategiaren zaintzaz eta zuzendaritzaz eta 1852. urtean 1.000 espezie baino gehiago zeuden bertan landatuta. Hamarkadaren amaiera aldera Errege Mintegiak zituen lursail zabalagoetara aldatu zen lorategia eta negutegi estufadunez, kristalezko estalkidun hazitegiz, ur-tangaz, loreontziz, kaxaz eta beste hainbat tresnaz ere hornitu zen. Bergarako lorategi botanikoak azpiegitura hezitzaile-zientifiko aktibo eta baliotsua jarraitu zuen izaten bigarren karlistadarekin batera (1873) ikastetxearen jarduna bertan behera geratu zen arte.

BILDU, GORDE, SAILKATU, IKERTU: EUROPAKO ZOOLOGIA ERREGE MINTEGIAN

Zoologia XIX. mendean

Naturaren beste zientziek bezala, zoologiak -animaliak ikertzen dituen zientziak- aurrerapen oso handia izan zuen XIX. mendean. Zoologiaren helburu nagusia animalien inbentarioa egitea zen mende horretan eta munduko animalia mota desberdinak aurkitzeko, bereizteko, izendatzeko eta klasifikatzeko ahalegin izugarria egin zen. Garapen horren oinarriak XVIII. mendean jarrita zeuden eta aitzindarien artean Carolus Linnaeus suediarra aipatu behar dugu halaber. Ezagutzen ziren izaki bizidunen kopuruak gero eta handiagoak izanik, premiazkoa suertatzen zen itxurazko anabasa hura ulertzeko metodoa garatzea. Hori



1872ko ikasketa egitarauan argitaratutako Errege Seminarioaren baratze eta lorategi botanikoaren planua (irudiaren behe eskuin angeluan).

Plano de la huerta y jardín botánico (en el ángulo inferior derecho) del Real Seminario de Bergara, publicado en el programa de estudios de 1872.

Efectivamente, arreglada la enseñanza secundaria mediante el Plan General de Estudios (plan Pidal) de 1845, ese mismo año se declaró al Seminario de Bergara Instituto Superior Guipuzcoano. El centro y sus profesores actuaron con rapidez y para el año de 1849 el Seminario contaba ya con un buen herbario. Tres años más tarde el citado herbario se había desdoblado en uno dedicado a especies exóticas y el otro a las autóctonas, y había conseguido materializarse el Jardín Botánico, que bajo el cuidado y dirección del Catedrático de Historia Natural, Fernando Mieg, cultivaba ya para diciembre de 1852 la notable cantidad de 1000 especies. Hacia finales de dicha década el jardín fue trasplantado a un lugar más espacioso dentro de los terrenos del Real Seminario y dotado de invernadero con estufas, semilleros con cubiertas acristaladas, depósito de agua, tiestos, cajones y diversas herramientas. El jardín botánico de Bergara siguió siendo una valiosa y activa infraestructura educativo-científica hasta que la actividad del centro se paralizó con motivo de la segunda guerra carlista (1873).

izan zen Linneok lortu zuena, hain zuzen ere: taxonomia modernoaren (klasifikazio eta nomenklatura sistemen) oinarriak ezarri zituen, landareak eta animaliak antolatu eta sistematikoki ikertu ahal izateko lehenengo tresna sortu zuen.

Zoologiaren atal desberdinen artean, ornitologiak (hegaztien ikerketak) eta entomologiak (intsektuenak) garapen izugarria izan zuten mende honetan. Munduko bazter guztietako milaka eta milaka espezie berri aurkitu, deskribatu, izendatu eta klasifikatu ziren. Kontutan izan behar dugu Ilustrazioaren garaitik zetorren esperimentazioan oinarritutako ikerketaren garrantzia eta zien-tziak eragingo zuen etengabeko aurrerapidearekiko konfidantza areagotu egin zirela XIX. mendean, besteen artean, positibismoari esker.

